

## LEHEN SARIA GAZTEAK, MUSIKA ETA EUSKARA. ARRASATEKO GAZTEEN IRITZIAK

**Luis Azpiazu Larrañaga**

*Batxilergoko Filosofia irakaslea*

*Arrasateko Arizmendi ikastola*

Helbide elektronikoa: luazpiazu@euskalnet.net

### SARRERA

Asko dira euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak eta ez da erraza izaten non hasten den baten eta non bestearen eragina zehaztea. Izan ere, elkarren artean korapilatuta eta elkarri eraginez agertzen dira eragileok beti. Gertakaria are konplexuagoa bihurtzen da, berriz, eremu informaleko hizkuntzaren erabileraz ari garenean. Hiztunaren hizkuntz gaitasuna edo motibazio pertsonaletatik hasi eta gizartearen egituretaraino joan beharko genuke fenomenoaren zergatietan sakontzeko. Beraz, gizartearen ematen den beste edozein fenomenok bezala, honek ere azalpen konplexua du. Iñaki Martínez de Lunak, adibidez, elkarlotutako hiru dimentsioen bidez azaltzen ditu hizkuntzaren erabileraren oinarriko baldintzapenak<sup>1</sup>: norbanakoaren maila, harreman sareena (gizartearen maila mikroa) eta gizartearen egiturarena (gizartearen maila makroa).

Lan honetan musikaren gaiari heldu diot, hau gazte nerabeen aisialdiko praktika kulturalik inportanteenetakoa baita eta, ondorioz, horien euskararen erabileran nabarmen eragin dezakeen faktorea dela uste dudalako. Martínez de Lunak gizartearen maila makroa deitzen duen dimentsioan ibiliko gara, beraz. Dimentsio horri buruz ari garenean irakaskuntzak,

lan-munduak, kulturak, erlijioak, aisialdiak edo komunikabideek izan dezaketen eraginaren inguruan jardungo dugu, besteak beste. Kontua da hauetako esparru bakoitzean euskara zer nolako baldintzetan aurkitzen den ikertzea. Izan ere, euskararen egoera asko aldatzen da eremu batetik bestera. EAEn, esate baterako, irakaskuntzak egoera normalizatua du lan-munduak duenaren aldean. Baina aipatutako gainontzeko esparruetan zein egoeratan aurkitzen da euskara? Zein dira, adibidez, nerabeentzat kultur erreferentzia edo eredu diren pertsonen erakusten dituzten hizkuntza jokaerak? Gazteei erakargarria egiten al zaie euskaraz dagoen kultur kontsumo-eskaintza? Asetzen al ditu horien beharrak? Zein dira nerabeen aisialdian nagusitzen diren praktikak eta horiek zein hizkuntzatan ematen dira?... Hauek eta beste asko dira gizartearen maila makroaz hitz egiten dugunean erantzun beharko ditugun galderak.

Lan honetan Arrasateko gazte nerabeen euskararen erabileran musika izan lezakeen eraginaz aritu naiz. Ez dut inolako hipotesi zehatzik formulatu eta fenomenoaren ezagutza orokorra lortzeko asmoz, ikerketa esploratzailea egin dut. Hau da, galdera orokorrak eta irekiak planteatu ditut, gaiaren lehen hurbilpena egiteko. Helburu horrekin, bada, lana hiru atal nagusitan banatu dut: 1) Nerabezaroa zer den eta gaur egungo gazteak nolakoak diren deskribatzen saiatu naiz, ume izatetik gazte izatera igarotzerakoan askok ordura arte erabiltzen zuten hizkuntza alde batera zergatik uzten duten ulertzen zertxobait gehiago lagunduko digulakoan; 2) Nerabeek dituzten erreferenteetan musikaren munduak duen tokia azpimarratu nahi izan dut. Alde batetik, honek betetzen duelako gazteen aisialdiko denbora gehiena. Bestalde, duela urte gutxi euskal gazteentzat erreferente ziren batzuk, abertzaletasuna eta, oro har, politikaren mundua adibidez, poliki-poliki desagertzen joan direlako, beste batzuen mesedetan, musika, kirola, bideojokoak edo telebistako pertsonaien mesedetan, esate baterako; 3) Arrasateko Arizmendi ikastolako gazteengana jo dut eta gaiaren inguruan horiek dituzten iritziak bildu ditut.

Ikerketaren unibertsoa Arrasateko Arizmendi ikastolan Bigarren Hezkuntzan ari diren 14 eta 17 urte bitarteko gazteek osatu dute. Hauetako 95 gaztek emandako informazioa *inkest*a (ikus. galdetegia eranskinean) bidez jaso dut. Inkestaz gain, *elkarrizketa sakonen* metodoa (ikus. elkarrizketen gidoia eranskinean) erabili dut informazioa biltzeko. 10 gazterekin egin ditut honelako elkarrizketak. Beraz, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa bateratzen saiatu naiz. Bietan antzeko gaiei buruzko informazioa jasotzen ahalegindu naiz: gazteentzat musika zer den; zer leku duen beren bizitzetan; zergatik entzuten duten; noiz eta nola entzuten duten; nora jozten duten musika bila; euskal musikaren inguruan dituzten uste eta arreitziak; komunikabideak oro har, eta, batik bat, musikaren inguruan euskaraz egiten diren irratien gaineko iritziak; irratia entzuten duten ala ez; entzuten ez badute zergatik ez; zein publikori zuzenduta dagoen; ematen duten musika mota; zein trataera ematen dioten komunikabideek eus-

---

***Lan honetan musikaren gaiari heldu diot, hau gazte nerabeen aisialdiko praktika kulturalik inportanteenetakoa baita eta, ondorioz, horien euskararen erabileran nabarmen eragin dezakeen faktorea dela uste dudalako.***

***Zein egoeratan aurkitzen da euskara? Zein dira, adibidez, nerabeentzat kultur erreferentzia edo eredu diren pertsonen erakusten dituzten hizkuntza jokaerak? Gazteei erakargarria egiten al zaie euskaraz dagoen kultur kontsumo- eskaintza? Asetzen al ditu horien beharrak? Zein dira nerabeen aisialdian nagusitzen diren praktikak eta horiek zein hizkuntzatan ematen dira?... Hauek eta beste asko dira gizartearen maila makroaz hitz egiten dugunean erantzun beharko ditugun galderak.***

karaz egiten den musikari; zenbat entzuten diren euskal taldeak; zer nolako bultzada ematen zaien talde hauei komunikabideetatik; ezagutzen dituzten talde euskaldunak; kontzertuetako giroaren gaineko usteak;... Esan behar dut, gainera, oso aberatsak iruditu zaizkidala elkarrizketok gaiaren inguruko informazio asko eta interesgarria jasotzeko aukera eman didatelako.

Esan bezala, gaiaren gaineko lehen hurbilpena baino ez dut egin hemen eta fenomenoaren inguruko ideia orokorra eman dut. Hala ere, bukeran ondorio batzuetara iristen ahalegindu naiz. Nahikoa orokorrak diren arren, Arrasateko gazteentzat musikak duen garrantzia ikusita, euskararen erabilera bultzatzeko esparru horretan jorratu daitezkeen zenbait lan-ildo azaldu ditut.

## **1. NERABEZAROA: HAURTZAROAREKIKO ETENA ETA EREDU BERRIEN BILAKETA**

### **1.1. Aldaketa garaia**

Nerabezaroa hitz bitan definitu beharko balitz, batez ere aldaketa garaia dela esan beharko genuke. Aldaketa bortitzen garaia, gainera. Umeak ume izateari utzi dio eta sozializazio eragile berriak sartu dira bere bizitzan. Ordura arte bereganatutako ohitura, rol edo arauak sortutako oinarritzako mundu horren bestelako eragile berrien menpe egoten hasiko da nerabea. Haurtzaroan umea gizartean, batik bat, familiaren baitan egon da. Familiari gain, gaur egungo bizimodu modernoan, telebistak eta lehen mailako irakaskuntzak ere eragin nabarmena izan ohi dute etapa honetan. Hauen bidez haurrak inguruan dituenen ohiturak, rolak, jarrerak eta balioak bereganatzen ditu. Besteek irakatsitako jarraibideak barneratu ditu eta hauek onartzeak eta betetzeak erakutsi dio munduan egoteko modua. Gainera, jasotako horrekin guztiarekin identifikatzen da umea inolako arazorik gabe, beretzat besterik ez balego bezala.

Baina 12-14 urteko gaztea aldaketa bortitzak bizitzen hasten da. Hauek, aspektu fisikotik hasi eta eremu afektibo, sozial edo intelektualetarainokoak dira. Horregatik, hain zuzen ere, pubertaroan eta nerabezaroan haurtzaroan onartutako balioek behea jotzen dute. Krisialdi bortitzean sartzen da gaztea eta ordura arte arazorik gabe, ia era inkontzientean, bere eginda zeuzkan balio eta jarraibide asko beste ikuspuntu batetik planteatuko ditu. Behar berriak ditu nerabeak eta bere bizitza behar berri horietara moldatzen hasiko da. Bizitza poliki-poliki aldatzen joango zaio eta inguruarekiko harreman berriak definitzen joango da. Egokitze horretan komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntzaren inguruko bizipenak ere berriak izango ditu. Beraz, garrantzitsua izango da testuinguru horretan aztertzea gazteen euskararen erabileraren gaia ere, alde batetik, gazte nerabeak bere inguru eta ingurukoekin izango dituen harremanek baldintzatuko baitute, neurri handi batean, erabilera hori. Bestaldetik, harreman berrio-

tarako aukeratuko duen hizkuntza ordura arte baino era kontziente eta arrazionalagoan egingo duelako gazteak.

Esan bezala, adin horretan sozializazio eragile berriak izango ditu eta, orain arte ez bezala, gazteak gizarteko zein esparrutan sartu nahi duen erabaki behar izango du. Ondorioz, esparru berri horietako arau eta balioak bere egingo ditu. Umetan jaso duena gurasoen, irakasleen, aitona-amonen edo neba-arreben bidez ia oharkabean inposatua etorri zaio eta horrekin identifikatu da. Orain, ordea, ikastetxean, kalean, talde politikoetan, komunikabideetan, kirolean, bideo-jokoetan, musika taldeetan edo lagun-taldean bilatuko ditu, besteak beste, ereduak eta gaztea bera joango da aukeratzen norekin eta zerekin identifikatu.

Beraz, ordura arte hain inportantea izan duen bere inguru hurbileko helduen protagonismoa ahuldu egingo da. Guraso eta irakasleengandik jaso dituen balio eta arauak garrantzia galtzen joango dira pixkanaka. Eta ez hori bakarrik, gehienetan, nerabeak aurka egingo dio mundu horri. Izan ere gaztea ez dago pozik ingurukoek eskaintzen diotenarekin eta hauek helarazten dioten mundu ikuskerarekin. Bere gazte izaera adierazi behar du eta hori helduen kontra eginez adierazten du. Ordura arte izan duen "aginteari" (helduak arauaren irudi dira) kontra egingo dio eta ez du onartuko mundu horretatik datozkion hainbat diskurtso<sup>2</sup>. Berak bakarrik gauzak espermentatu eta deskubritzeko beharra du. Independentea izan nahi du eta familiarengandik autonomia lortzeko borrokatzen du. Haurtzaroan oinarrizkoa zuen munduaren mugak hautsi egingo ditu eta bere bizitza gero eta esparru berri gehiagotara zabalduko du: aisia, lagunartea, politika, kalea, festak, gaua edo lan mundua, esate baterako. Eta hauen bidez joango da gaztea gizarteko kultura bereganatu eta bere identitate soziala garatzen. Horrela joango da pertsona egiten.

Esan dudan moduan, beraz, testuinguru honetan aztertu behar da hizkuntzaren gaia. Gazte askok euskara familian jaso dute eta beste askok familiaz gain eskolan ere bai. Haurtzaro guztian euskara izan da askoren hizkuntza eta hala bizi izan dira. Izan ere, *afektiboki familia eta bere barnean familia hizkuntza eta norbere garapen emozionala lotuta doazenez, motibazioa ziurtatuta dago. Afectibitatea eta efektibitatea lotuta doaz*<sup>3</sup>. Familian euskara jaso duenak hizkuntza landu (ezagutu), hizkuntza horretan bizi (erabili) eta hizkuntza hori maite (motibazioa) egingo du. Eredu izan direnengandik jasotako hizkuntzan bizi ahal izan da haurra, gatazkarik gabe gainera. Hau, ordea, *inposatua* eman zaio eta inkontzienteki bereganatu du. Horregatik haurtzaroan jaso duen mundu ikuskerak ez dio inolako gatazkarik sortu, besterik ez baitu ezagutu. Umeak, beraz, naturalki egin du euskaraz. Baina aipatu dugun bezala, 12-14 urteko gazteen bizitza esparru berrietara zabaldu da eta eredu berriak izaten hasi da. Ordura arte eredu izan duen familiak protagonismoa galdu du eta bertan jasotako balioak edo indartzen joan diren ohiturak nabarmen ahuldu dira, erabat desagertuko ez badira ere<sup>4</sup>. Aurrerantzean inguruarekin izango dituen harremanetarako hizkuntza era kontzien-

---

***Ikerketaren unibertsoa  
Arrasateko Arizmendi  
ikastolan Bigarren  
Hezkuntzan ari diren 14  
eta 17 urte bitarteko  
gazteek osatu dute.  
Hauetako 95 gaztek  
emandako informazioa  
inkesta (ikus. galdetegia  
eranskinean) bidez jaso  
dut. Inkestaz gain,  
elkarrizketa sakonen  
metodoa (ikus.  
elkarrizketen gidoia  
eranskinean) erabili dut  
informazioa biltzeko. 10  
gazterekin egin ditut  
honelako elkarrizketak.***

***Gaztea ez dago pozik ingurukoek eskaintzen diotenarekin eta hauek helarazten dioten mundu ikuskerarekin. Bere gazte izaera adierazi behar du eta hori helduen kontra eginez adierazten du. Ordura arte izan duen “aginteari” (helduak arauaren irudi dira) kontra egingo dio eta ez du onartuko mundu horretatik datozkion hainbat diskurtso.***

teagoan aukeratuko du gazteak, motibazio propioek (gero eta arrazionalagoak direnak) eta gizarteak sortzen dizkion beharrak eraginda.

Beraz, adin horretatik aurrera motibazioa izango da gaztearen euskararen ezagutza eta erabileraren motorra, adin hori iritsi arte gauzak bestela gertatu bazaizkio ere. Umetan gurasoek hautatu dute hizkuntza eta haurra etxean euskara erabiliz motibatu ahal izan da. Honi deituko dio Txepetek ikaste prozesu primarioa edo prozesu naturala. Hizkuntza batean jarduteak haurrari hizkuntzarekiko jarrera baikorra sortarazi dio eta honela bere izateari lotuta geratu zaio. Ondorioz, erabilerak ezagutza dakar eta honek hizkuntza erabiltzeko motibatu du. Hau da, erabiltzearen poderioz (imitazioz hasten dena) lortuko du hizkuntza bereganatzea eta bere behar komunikatiboak asetzeko adinako nahikotasuna lortzen duenean motibatua sentituko da hizkuntza hori erabiltzeko. Honela bada, prozesu naturalaren bidez jasotako hizkuntza nortasunari lotuta geratuko zaio, neurri handi batean lehen mailako sozializazioaren ezaugarriak nabarmenena afektibitatea baita. Afektuzko harremanen bidez ikasiko du hizkuntza eta osagai afektiboak atxikiko dizkio hizkuntza horri.

Geroago, ordea, 12-18 urteetan afektibitateak ez du halako garrantzirik eta umea mundu instituzionalean barneratzen ari da (eskola, lan mundua, lagun taldea,...). Umetan inkontziente zituen ohitura batzuk orain kontziente egin beharko ditu eta hizkuntzarekiko jarrerekin ere halaxe gertatuko da. Txepetek ibilbide kulturala deitzen duen hau abiatzeko, beraz, hizkuntzarekiko motibazioa ezinbestekoa da. Hala ere, lehen hizkuntzarekiko motibazio naturala ez bada iristen nahikotasun mailara motibazioan hutsunea gertatuko da eta hau beste hizkuntza batek beteko du. Kasu horretan hizkuntza ordezkapenaz hitz egin beharko genuke.

Beraz, bi motibazio mota daude: berezkoa edo barrukoa eta kulturala, arrazoizkoa edo kanpokoa. Eta bi motibazio mota hauek parte-hartzen duten bi prozesuak (natural eta kulturala) beharrezkoak dira norbaitek hitz egiteko ohitura izan dezan eta Txepetek deitzen duen “hiztun osoa” izan dadin. Beraz, honen arabera, haurren hizkuntza errealitatean eragiteko lehentasunezko esparrua familia izango da eta honen atzetik egongo dira irakaskuntza eta aisialdia. Gazteek, ordea, haurtzaroko hizkuntzari eutsi diezaioten eragin beharreko esparruak ibilbide kulturalari dagozkionak izango dira, hau da, aisialdia eta irakaskuntza.

Ibilbide kulturean eragiteko esparru hauen gainean bi gauza aipatu behar dira. Batetik, irakaskuntzak konpetentzia formalak baino ez dituela erakusten eta hizkuntzaren erabilera, batez ere, konpetentzia informalean oinarritzen da. Eskolak, ordea, arazo asko ditu hauek transmititzean. Gazte asko ikusten da filosofiako testu iruzkinak edo fisikako azterketak euskara zuzen eta egokian egiteko gai dena, baina gelako esparru akademikotik kanpo euskara erabiltzeko inolako motibazio barik, ezinean lagunarteko elkarrizketarik arruntenak egiteko ere. Beraz, euskararen erabilera eragiten duten faktore eraginkorrenak, batzuk behintzat, gaur egun, eskolatik urrun daudela esan daiteke.

Bestalde, eskolak erabilera indartu egin behar duela esaten dugunean, eskolaren mugak nabarmenak dira. Bigarren Hezkuntzari bagagozkio, ikasle batek bere denboraren %12 baino ez du pasatzen eskolan. Beraz, datu hau arestian esandakoari gehitzen badiogu, badirudi kalea, aisialdia, lagunartea eta eskolaz kanpoko ekintzak, eskola bera baino eraginkorragoak bilakatzen direla erabileran eragiteko orduan. Hauek izan behar dute eskolaren jarraipena eta eskolakoa osatzen dutenak. Kaleak edo lagunarteak, adibidez, euskara modu ez-formalean erabiltzeko aukera ematen dute eta indartu beharreko esparruak izango dira hizkuntzaren normalizazioa lortu nahi bada.

Nerabezaroen ezaugarriekin amaitzeko esan behar da, adin horretan ematen den haustura horrekin batera, kontuan hartu behar dela ere nerabeek ereduenganako duten imitazio indarra. Alegia, nerabeek identifikaturik sentitzen diren jarraibideak bilatzen dituzte gizarteak eskaintzen dizkien ereduetan. *Lehenengoarekiko* (helduen munduarekiko) *sentimendu bikoitza agertzen dute: helduek araua ordezkatzeko duten neurrian, horien aurkako joera adieraziko dute gehienetan, arauak hauste horretan gazte izaera azaltzeko funtsezko bidea dute eta. Dena dela, horrekin batera nagusiek gizarte botere eta prestigioa bereganatzen duten neurrian, eredu eta ispilu bilakatzen dira neska eta mutil gazteentzako*<sup>5</sup>. Ez da kasualitatea nerabeen geletako ormak edo eskoletako karpetak irudiz beteta egotea, esate baterako. Musikan, telebistan, kirolean, politikan edo beste edozein gizarte-taldetan topatuko dituzten eta eredu sentituko dituztenen irudiz beteta hain zuzen ere.

Beraz, orain artekoa laburtuz, nerabeak bigarren sozializazio prozesua hasiko du eta bertan faktore berriek hartuko dute parte. Honek aldaketa eta gatazka bortitzak eragingo dizkio gazteari. Behar berriak eta bizipen berriak izango ditu bere inguruarekin eta horrek bere bizitzako gauza askoren birplanteamendua ekarriko du, tartean ordura arte besteekin komunikatzeko erabili duen hizkuntzarena ere bai. Gatazka horretan helduek eskaintzen dioten mundu ikuskeraren kontra arituko da bere nortasuna erakutsi nahian, baina aldi berean helduen mundutik eta gainontzeko gazteengandik hartuko ditu ereduak ere.

## 1.2. Euskararen ezagutzatik erabilerara (sozializazioaren etena)

Kontua da nerabea deskubritzen ari den mundu eta esparru berri horiekiko harremana zein hizkuntzatan izango den, inguruneak hizkuntzaren erabilerarako motibazioei ezartzen dizkien mugak handiak baitira. Olatz Zabaletak dioen moduan, *sozializazio prozesuan euskarak atzeraka egitea, hau da, adin batetik aurrera sozializazioa (lan mundua, kasu adierazgarriena da) gaztelaniaz izatea, erabileraren bilakaera motel honetan erabakigarria da. Izan ere, euskara haurrek dezente gehiago erabiltzen dute, baina hizkuntza txikitzen ikasi duen hiztunak, hiztun osoan bilakatzeko, hizkuntza horrekin zenbait funtzio sozial betetzeko aukera izan behar du, horrek kulturalki motibatuko du hiztuna. Hezkun-*

---


***12-14 urteko gazteen bizitza esparru berrietara zabaldu da eta eredu berriak izaten hasi da. Ordura arte eredu izan duen familiak protagonismoa galdu du eta bertan jasotako balioak edo indartzen joan diren ohiturak nabarmen ahuldu dira, erabat desagertuko ez badira ere. Aurrerantzean inguruarekin izango dituen harremanetarako hizkuntza era kontzienteagoan aukeratuko du gazteak, motibazio propioek (gero eta arrazionalagoak direnak) eta gizarteak sortzen dizkion beharrak eraginda.***

**Irakaskuntzak kompetentzia formalak baino ez dituela erakusten eta hizkuntzaren erabilera, batez ere, kompetentzia informaletan oinarritzen da. Eskolak, ordea, arazo asko ditu hauek transmititzean.**

**Bestalde, eskolak erabilera indartu egin behar duela esaten dugunean, eskolaren mugak nabarmenak dira. Bigarren Hezkuntzari bagagozkio, ikasle batek bere denboraren %12 baino ez du pasatzen eskolan..**

tzak mugak ditu erabilera bultzatze aldera<sup>6</sup>. Izan ere, irakaskuntzak garapen handia izan duen arren eta honek gazteen jokoeretan eragin izan badu ere, hau euskararen ezagutzaren hedapenaren inguruan izan da batez ere. Gaur egun ezagutza inoiz baino hedatuago dago eta hori baieztatzen dute datuek. Alboko grafikoan ageri da, esate baterako, zer nolako bilakaera izan duen hizkuntza gaitasunak Arrasateko gazteen artean 1986-2001 urte tartean. 2001ean gazte erdaldunak %4 baino ez ziren eta joera hori mantendu egin da azken urteotan. D ereduko matrikulazioak ere gora egin du eta 2010-2011 ikasturterako aurre-matrikulazioa, Gipuzkoan adibidez, % 88,79 izan da (1983-1984 ikasturtean %27,2 izan zen eta 2006-2007an %70,1). Gorako joera nabarmena du, beraz, euskarazko irakaskuntzak eta gaur egun, EAEko 13-14 urteko ia gazte guztiak iritsi dira etxean zein eskolan jasotako euskararen bidez hizkuntza hau ezagutzera.

1. Grafikoa. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera gazteen artean. Arrasate, 1986>>2001 (%)



Hala ere, euskararen kale erabileraren gaineko datuek ez dute halako egoera baikorrik adierazten. Gazteek euskara gero eta gehiago erabiltzen duten arren, oraindik erdara nagusi da beren gizarte harremanetan. Haurrak eta gazteak dira kalean euskaraz gehien egiten dutenak helduak eta adinekoekin konparatuta. Baina badirudi ume askok koskortu ahala, euskaraz egiteari utzi egiten diotela eta beren harremanetan erdara nagusitzen hasten dela. Beheko taulan ageri denaren arabera, Arrasateko gazteen euskararen kale erabilerak behera egin du dezente (6 puntu) azken urteotan, haurrenak, aurreko urteetan baino motelago bada ere, gora egin duen bitartean. Beraz, datuon arabera, azken urteotan bi adin taldeen erabilera mailaren arteko tartea handitu (hirukoiztu) egin da Arrasaten<sup>7</sup> eta aurreko urteetako joera ez da bete.

1. Taula. Euskararen kale erabilera Arrasaten (%tan) 1988 - 2010

Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1988-1990	23	12	11	25	14
1991-1995	36	19	17	27	22
1996-2000	42	33	23	22	30
2001-2005	46	41	28	25	31
2006-2010 (*)	47	35	32	25	33

(\*) 2010 urteko datuak falta dira

Datuotatik, oso orokorrak eta gutxi badira ere, zenbait ondorio lor daiteke:

- Lehenik nabarmendu behar da goiko taularen arabera gaur egun haurrek eta gazteek dutela Arrasaten erabilera mailarik altuena. 1988-1990 urte tartean haurrek eta adinekoek zuten mailarik altuena baina azken datuei begiratu, zenbat eta gazteago izan, euskararen erabilera orduan eta altuagoa dela ikusten da. Zalantzarik gabe, euskararen normalizazio prozesua bide onetik doala pentsatzeko datu itxaropentsua.
- Baina haurren erabilera mailaren bilakaerak gora egin duen arren, gazteen adin taldearen erabilerak azken urteotan jaitsiera nabarmena izan du eta 2005era arte, 17 urtez, izan zuen gorako joera eten egin da Arrasaten. Euskaldunen dentsitatea %50 baino gehiagokoa bada ere<sup>8</sup>, adin talde horren erabileraren bilakaera ez da izan euskaldun kopuru hori duen zonalde soziolinguistikoari dagokiona. 2001etik 2006ra bitartean beste adin taldeek, apal bada ere, gora egin duten bitartean gazteen adin taldearen erabilerak beherantz egin du 6 puntu.
- 2005-2010 urteotan erabileran nabarmenen gora egin duen adin taldea helduena izan da (4 puntu igo da). Honek badu bere garrantzia nerabeei buruz gorago esan duguna kontuan hartzen badugu. Alegia, nerabeek ereduenganako duten imitazio indarra handia dela esan dugu eta adin horietan ematen den identitate eraikuntzan nagusiak eredu bilakatzen direla. Gizartean prestigioa bereganatu dutenak, musika, kirola edo telebistako idoloak, ingurune hurbilekoak, familiakoak, irakasleak edo gizartean erreferente diren helduak izango dira, besteak beste, ispilu neska eta mutil gazteentzat. Zonalde euskaldunekin jarraituz, eremu hauetako helduen erabileraren bilakaerak beherantzko joera izan du azken 17 urteetan lurralde guztietan Gipuzkoan izan ezik. Alde batetik, honek gazteen erabileran eragina izan dezakeela pentsa dezakegu, ezin baita ahaztu helduek erabileran duten gako izaera. Helduak gizartean prestigio maila handieneko postuetan egoten ohi dira, aginte postuetan. Adin tarte honetan izandako jaitsiera gazteen erabileran eragiten duen faktore gehigarri bat dela pentsa daiteke.<sup>9</sup>Alde ho-

***Gazteek euskara gero eta gehiago erabiltzen duten arren, oraindik erdara nagusi da beren gizarte harremanetan. Haurrak eta gazteak dira kalean euskaraz gehien egiten dutenak helduak eta adinekoekin konparatuta. Baina badirudi ume askok koskortu ahala, euskaraz egiteari utzi egiten diotela eta beren harremanetan erdara nagusitzen hasten dela.***






***Hemen sortzen den galdera-gakoa izango da aztertzen ari garenaren funtsezko kuestioa: zergatik uzten diote nerabe askok adin horretara iristean euskara erabiltzeari? Zergatik erabakitzen dute gazte askok erdarara jotzea ordura arte erabili duten hizkuntza utziz? Hau argitzeko Arrasateko gazteen hizkuntza erabileran zerk eragiten duen azaldu beharko litzateke lehendabizi eta hori ez da batere gauza erraza.***

rretatik, beraz, datu positiboa da helduen erabilera mailaren hazkuntza, nerabeak umetan ardatz zuen inguruaren mugak hautsiz gizartera joko baitu beren garapen pertsonalak eskatuta eta hor helduek dute protagonismoa. Hauek bihurtuko dira eredu arrakastatsu. Gure kasuan, ordea, Arrasateko datuei begira, gazteen erabilerak behera egin duela ikusten dugu eta sozializazioaren etena handituz doala azken urteotan. Datu kezagarria, izan ere, arestian aipatu bezala, gazteak berak ere eredu bilakatuko baitira gainontzeko beste gazteagoentzat.

- Azkenik esan gazteen erabilera mailak haurrenarekiko duen aldea nabarmen handitu dela, baina beherantz. Hau da, ume izateari uzten diotenean askok euskara erabiltzen jarraituko dute baina beste askok ez, bi adin taldeen artean nolabaiteko etena sortuz. Izan ere, adin honetan gazteak zein giza taldean integratu erabakitzen duen moduan, harreman berri horietan zein hizkuntza erabili ere hautatu egingo du. Gainera, azaldu dugun moduan, aukeraketa hau modu kontzientean eta berak nahi duelako egingo du.

Hemen sortzen den galdera-gakoa izango da aztertzen ari garenaren funtsezko kuestioa: zergatik uzten diote nerabe askok adin horretara iristean euskara erabiltzeari? Zergatik erabakitzen dute gazte askok erdarara jotzea ordura arte erabili duten hizkuntza utziz? Hau argitzeko Arrasateko gazteen hizkuntza erabileran zerk eragiten duen azaldu beharko litzateke lehendabizi eta hori ez da batere gauza erraza<sup>10</sup>. Izan ere gazteen erabilera informalean eragiten duten faktoreak askotarikoak dira eta elkarren artean nahastuta doazenak gainera. Norbanakoaren gaitasun erlatiboa, gazteen interesak, dituzten euskarazko harreman sareak, hizkuntzaren gizarte irudia eta estatusa, gizarrean erreferente diren pertsonaien jokoera, familia mistoak ala elebakarrak diren, erdaldunekiko harremanak, hizkuntzaren ospea edo euskarazko kontsumo eskaintza dira, batzuk aipatzearen, aztertu beharrekoak gazteen sozializazio prozesuan euskararen erabilerak duen etenaren zergatiak argitzeko, haurtzaroen jaso zituen hizkuntza-ohiturak askotan desagertu egin baitira.

Hemen orain arte azaldutako datuak oso orokorrak dira eta ez dute inolako argitasunik ematen aipatutako faktore batzuei buruz. Izan ere gazteek lortu duten gaitasun erlatiboa edo inguruan duten euskarazko hitunen maiztasuna dudarik gabe, aldagai garrantzitsuak dira. Honi buruzko daturik ez dut lortu. Esate baterako, Arrasateko gazte horiek nolako familiatakoak diren, familia mistoak ala euskaldunetakoak, alegia. Ezta beren gertuko ingurunean zer nolako harremana duten erdaldunekin edo etxean bertan zein hizkuntza erabiltzen duten ere. Eta gazteon benetako argazkia egiteko halako datuak beharko genituzke<sup>11</sup>.



*Gaur egun EAeko gazte gehienak elebidunak dira eta gehienek euskara etxetik kanpo ikasi dute, eskolan edo euskaltegian hain zuzen ere. Honek izugarritzko eragina izango du hauen euskararen erabileran, esparru horietatik kanpo dituzten harreman sare nagusiak erdara hutsez izango baitira.*

Esate baterako, goiko datuetan (2006ko datuak dira) ikus dezakegu Arrasateko datuak (biztanleria osoari dagozkionak) zeintzuk diren jatorrizko hizkuntza euskara dutenei dagokionez eta etxean euskara erabiltzen dutenei buruz. Izan ere, euskara etxeko harreman naturalen bidez berenganatu duten nerabeen hizkuntzarekiko jokaera ezberdina izango da, euskara sare formalen bidez (eskola) jaso dutenen jokaerarekin alderatuta.

Bestalde, Arrasaten eta Euskal Herrian, oro har, bizi den gatazka linguistikoak eraginda, euskaraz mintzatzen diren nerabeek gizarte hizkuntza nagusian aritzeko joera erakusten dute sarritan eta beren berezko hiz-

---

***Esan dugun moduan euskararen erabilera baldintzatzen duten aldagaiak anitzak dira eta datu gehiago beharko genuke aztertzen ari garen nerabeen inguruko argazki egiazkoagoa egiteko. Dena dela, datuak datu, gaia argitzen lagun diezagukeen zenbait gauza gehiago ere aipatu ditzakegu. Hau da, nolakoak dira euskara jakin arren hitz egiten ez duten gazte horiek?. Galdera horri erantzuteak ere, neurri batean, korapiloa askatzen lagunduko liguke, euskara erabiltzeari uzten dion gaztearen ezaugarriak ezagutuko baikenituzke.***

kuntza albo batean uzten dute. Hori, ordura arteko sozializazioaren eragile nagusi izan diren familia eta eskolaren kontrako errebeldia erakusteko modua baino ez da izaten askotan. Baina prestigioa duen helduen munduko parte izateko nahiak ere bultzatzen ditu gizarteko hizkuntza nagusia hartzera. Horren arabera aldatzen du hizkuntza askotan nerabeak. Errebeldia garaia amaitzen denean, berriz, nerabeek beren berezko hizkuntza onartzen dute eta asko bueltatu egiten dira. Beste batzuk, ordea, ez eta horretan dago, hain zuzen ere, ezberdintasuna. Txepetxen ibilbide naturalaren bidez euskara (gure kasuan hizkuntza gutxitua) jasotakoak, hau da, familian hizkuntzarekiko afektuzko harremana bizi izan dutenak, berezko hizkuntzara itzultzeko aukera gehien dutenak dira. Aldiz, euskararekiko harreman nagusia (eta batzuetan bakarra) esparru formaletan bizi izan dutenek, nerabezeroaren ondoren, gizartean dominantea den hizkuntza hitz egiten jarraitzeko arrisku handiagoa dute.

Gaur egun EAEko gazte gehienak elebidunak dira eta gehienek euskara etxetik kanpo ikasi dute, eskolan edo euskaltegian hain zuzen ere. Honen izugarritzko eragina izango du hauen euskararen erabileran, esparru horietatik kanpo dituzten harreman sare nagusiak erdara hutsez izango baitira. Egoera hau, berriz, areagotu egiten da, gazte euskaldun berri gehienek guraso erdaldunak dituztelako. Erdal elebidunak deitutakoak izango lirateke hauek eta ez dute euskara erabiltzeko joerarik agertzen. Aldiz, euskara gehien erabiltzen dutenak nagusiki euskal elebidunak dira. Beraz nerabeen jarreretan alde nabarmenak egongo dira aipatutako faktore hauen arabera. Ezin izan dut, ordea, lortu honi buruzko Arrasateko daturik.

- Hizkuntzaren gaineko erabaki hartze hau korapilatsu bihurtzen du bera parte deneko komunitateak hizkuntza gatazka bizi badu. Urteak pasatu ahala gizarteko beste esparru batzuetan mugitzen hasiko da gaztea (aisia, lana, lagunartea, gau giroa,...) eta gizartean dagoen hizkuntza gatazka bereganatuko du, alegia, orain sartzen ari den gizartean erdarak duen indarrak ohartuko da. Beraz, labur esanda, aipatu ditugun gizarteratze esparru berriak erdaraz badira, nahiz eta ordura arte gazteak euskaraz egin, horrela egiten jarraitu nahi badu motibatua egon beharko du. Behintzat, egoera normalizatuan egingo lukeena baino euskararen aldeko apustu askoz kontzientegoa eta tinkoagoa egin beharko du: gizartean gertatzen denaz ohartu, hausnartu eta norabidez aldatu, hau da, hizkuntzatat euskara hartu. Beraz, hizkuntzaren normalizaziorako, haur izatetik gazte izatera pasatzen den garai honetan hizkuntza ohiturei eusteko bideak lantzeak izan beharko luke lehentasuna.

### 1.3. Gazte postmodernoak?

Esan dugun moduan euskararen erabilera baldintzatzen duten aldagaiak anitzak dira eta datu gehiago beharko genuke aztertzen ari garen nerabeen inguruko argazki egiazkoagoa egiteko. Dena dela, datuak datu, gaia argitzen lagun diezagukeen zenbait gauza gehiago ere aipatu ditzakegu. Hau da, *nolakoak dira euskara jakin arren hitz egiten ez duten gazte horiek?*. Galdera horri erantzuteak ere, neurri batean, korapiloa askatzen lagunduko liguke, euskara erabiltzeari uzten dion gaztearen ezaugarriak ezagutuko baikekituzke. Izan ere, gizartea asko aldatu da azken 40 urte hauetan eta gazteriak ere izan du aldaketarik. Hemen ez dugu egingo gaiaren azterketa sakonik, hau ez baita lanaren helburua, baina gazteon ezaugarriak ezagututa, nire ustez, erabileran eragiten duten faktoreak hobeto balora ditzakegu eta azterketa errealistagoa egin ahal izango litzateke.

Azken urteotan ekonomiak estatuen ohiko muga administratiboak hautsi izanak eragin handia izan du bizitzako gainontzeko aspektuetan. Kapitala (nazioetatik at kudeatzen diren multinazionalen hedapena) eta lan-indarrak munduan zehar libre mugitzen den moduan (etorkinen mugikortasuna, EAEn 2008an %5,4), teknologia berriek (internetek bereziki) komunikazioa ere munduko bazter guztietara azkar baino azkarrago hedatzea ekarri du. Honek, berriz, distantzia kulturalak murriztu egin ditu. Munduko bazter guztietan dute eragina herrien mugaz gaindi hartzen diren ekonomiari buruzko erabakiek edo komunikabideetatik zabaltzen den informazioak. Estatuak ez dira gai beren soberaniaren parte izan diren prozesu ekonomiko eta kulturalak berek bakarrik kontrolatzeko. Beraz, botere berri horien eraginpean dago mundua eta horrela ari dira ezartzen gero eta antzekoagoak diren bizimoduak. Eta noski, hau guztia hizkuntza jakin batzuetan ematen ari da. Hizkuntza indartsuak balio du, ahalik eta eremu-rik zabalena hartzen duenak hain zuzen ere. Nazioartean ingelesa jakin beharra dago, ez, ordea, euskara.

Aldaketa hauekin batera, teknologia berriek komunikazio mundua hankaz gora jarri dute. Internet gainontzeko komunikabideen (TB, egunkariak, irratia,...) erabilera aldatzen ari da eta informazio-iturri nagusi izateko bidean da. Adibidez, 2005ean komunikabide guztien kontsumoa hazi egin zen Europan, baina gehien internet igo zen (asteko 10 ordu eta hamabost minutu baino gehiago, 2004ean baino %17 gehiago eta 2003an baino %56). Hemen, berriz, kultura eta hizkuntza indartsuak ari dira nagusitzen eta horien eskutik dator informazioa. Ondorioz, txikiaren asimilazio kultural eta linguistikoa gertatzeko arriskuak ere gora egin du. Herrien (kultura berri honetan ahul direnak) identitateak arriskuan daude eta komunikabideetan nagusi denak izango du prestigioa. Izan ere, honek du eskaintza kulturalik handiena (aisialdia, lan mundurako sarbidea, informazioa, musika, bideojokoak, zinea,...) eta asebetetasun handiagoa emateko gai diren kontsumogaiak eskaintzen ditu. Aurrez aipatutako asimilazioaz gain, fenomeno ho-

---

***Duela hogeita bost urte inguruko gazteentzat motibagarri ziren euskararen gaineko zenbait diskurtso zaharkitua geratu dela esango nuke. Euskaraz eta kitto bezalako leloek ez dituzte gazte asko konbentzitzen gaur egun. Autoritateak (egin euskaraz!) umetan balioko zuen baina ez nerabezaroan. Identifikazio politikoaren diskurtsoa ere ez zaio gaurko gazte askori iristen. Gazteak ez dira militanteak eta euskararekin ere ez.***

**Umetako egunerokoan izan dituzten faktore eragileen ordena 1. gurasoak eta familia; 2. Irakasleak; 3. Gizarteko pertsonaia prestigiodunak, izan bada, nerabezaroan hau alderantzikatu egin da. Gertuko erreferentziek garrantzia izango duten arren (ingurune hurbileko pertsonak, begiraleak, kirol entrenatzaileak, herriko gazteak,...), 14-15 urte dituen gaztearentzat beste berri batzuk gailenduko dira (gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera: entzute handiko pertsonak, agintariak, kirol edo musikaren munduko idoloak,...).**

nek hizkuntza gutxituekiko jarrera kaltegarriak sor ditzake hiztunengan, beren hizkuntzari erabilgarritasun eta prestigio gutxi ikusten diotelako.

Baloreei dagokionez, aldaketok postmodernitate<sup>12</sup>ekarri dute gurera ere eta honek jendeak gizartearekiko duen jarrera aldatu egin du. Oso labur esanda, modernitatearekin apurtzeak indibidualismoa, intimismoa edo bizitzaren aurreko hedonismoa bezalako balioak jarri ditu iraultza, aberria edo justizia soziala moduko gainetik. Inportanteena norberaren pertsonalitatea errealizatzea da eta kontzientzia sozial eta politikoak bigarren (edo hirugarren) planora pasatu dira. Irudien munduan murgildu da gizartea eta komunikabideek (teknologiari esker) eta marketinak hartu dute indarra (iritzi sortzaile nagusi bihurtu dira eta modak sortzen dituzte, baina ez arropa edo idea estetikoetan bakarrik, sentitzeko eta besteekin erlacionatzeko moduetan ere bai). Planteamendu ideologikoen edo zentzu historikoak, ordea, porrot egin dute. Bi hitzetan esateko, zelanbaiteko axolagabekeria hedatu da orain arte ardatz izan diren zenbait ideiaen aurrean. Esate baterako, hizkuntza gutxituek aurrera egiteko beharrezkoak dituzten kontzientzia linguistikoa edo arriskuan dagoen hiztun-talde bateko kide izatearen sentimenduaren ahultzea gertatu dira.

Labur, agian laburregi, azaldu dugun arren hemendik ondorio batzuk atera ditzakegula uste dut gure gaia hobeto kokatzeko:

- Batetik, duela hogeita bost urte inguruko gazteentzat motibagarri ziren euskararen gaineko zenbait diskurtso zaharkitua geratu dela esango nuke. *Euskaraz eta kitto* bezalako leloek ez dituzte gazte asko konbentzitzen gaur egun. Autoritateak (*egin euskaraz!*) umetan balioko zuen baina ez nerabezaroan. Identifikazio politikoaren diskurtsoa ere ez zaio gaurko gazte askori iristen. Gazteak ez dira militanteak eta euskararekin ere ez. Hau ez dago beren lehentasunetan. Geroago musikaren gaiarekin agertuko bada ere, gazteen artean euskara pisu gutxi duen aldagaia dela iruditzen zait. Areago dena, euskararen gaien gazteek ilusio handirik ez dutela esango nuke eta euskararen normalizazioaren arazoa ez dutela beren arazo sentitzen. Ondo dago euskararen alde lan egitea baina horretarako daude AED (Arrasate Euskaldun Dezagun), euskaltegiak edo ikastoletako irakasleak. Lehentasuna norbanakoaren gogobetetasunak du eta euskarak ere hori asetzen asmatu beharko du gazteek hizkuntza erabiltzerik nahi bada. Adibidez, aisia da gaur egun lehentasunezko bihurtu den esparrua gure gizartean. Gazteentzat ere hala dela dirudi. Ondorioz, beren aisialdirako produktu erakargarri eta onak badituzte euskaraz (musika, telebista, SMSak, Mp3ak, zinea,...), horiek kontsumitu egingo dituzte. Esan bezala, norberaren plazera eta gozamina dira nagusi eta, horregatik, euskarazko produktu eta zerbitzuen kontsumo-eskaintza garrantzitsuagoa bilakatu da gaur egun, hizkuntza erabiltzeko irizpide inportanteenetakoa bihurtu baita gaurko gazteentzat.

- Gorago esan dut komunitate bateko partaide izatearen kontzientzia ahulduta dagoela, hau da, herria, eskualdea, lurraldea nazioa edo kulturarekiko kidetasun sentimenduak indar gutxi duela gazteengan. Nire ustez ez du batere interesik pizten gazteengan “jatorri ezezaguna duen Europako hizkuntzarik zaharrena”, “Pirinioak bizkarrezur zuen euskal zibilizazioa” edo “euskara herri zahar honek duen altxorra” bezalako ideiak adierazteak. Izan ere, euskara identitate (kulturala, politikoa, nazionala,...) emailea den elementua ere bada. Hau da, euskara sentimendu batzuei lotuta ere badago eta balio politikoa ere badu. Gainera, euskara asko baliatu da horretaz eta abertzaletasunak hizkuntzaren bilakaeran izan duen eragina ez luke inork ukatuko. Gaur egun, ordea, uste dut gure gizartean herri eta euskal identitatea izatearen kontzientziak eraginkortasun gutxi duten ideiak direla. Gaiak azterketa sakona beharko lukeen arren, ideia hauen ahultzea nabarmena dela esango nuke gazteengan. Ondorioz, gizartea alde batera badoa eta euskararen gaineko diskurtsoak bestetik badoaz, ez da erraza izango gazteen euskararekiko atxikimendua lortzea. Horrelako mezuek ez dute inolako gaurkotasunik eta beraz, euskararen aldeko mugimenduen planteamenduek gazteen errealiterata egokitu beharko dute.

- Gaur egun aipatu ditugun diskurtsoen gainera komunikabideak eta marketina daude. Horregatik euskara modan dagoela sentitu behar dute gazteek, komunikabideetan prestigiodunak direnek euskara erabiltzen dutela ikusiz, esate baterako. Ez da ahaztu behar irudien mundura ohituta daudela gazteak (TB) eta horien jokabideetan arrazoiak bakarrik ez duela eragiten, sentsazioen mundua nagusitzen ari baita. Gaur egun gazteek bere idoloak direnak edo mediatikoak diren pertsonaiak euskaraz ikusteak duen indarra, batzuek dioten moduan oso arrazionala ez izan arren, orain arte egin izan diren zenbait diskurtsoen (koherentziaz beteak izan arren) aldean indar eta eraginkortasun handiagoa du gazteengan. Informazio mediatikoak eta pertsona eta talde erreferenteak, beraz, beste eragile inportante bilakatu dira hizkuntzaren faktore identitario, sinboliko eta integratzaileen gainera gainetik gaurko gazteentzat.

- Gure gaiari dagokionez, kontuan izan behar da, gainera, gazte hauek nerabeak direla eta aldaketa fase bortitz batean murgilduta daudela. Nortasuna eratzen ari dira eta oso kritikoa agertzen dira helduekiko eta, oro har, orain arteko sozializazio prozesuan izan diren faktoreekiko. Umetako egunerokoan izan dituzten faktore eragileen ordena 1. *gurasoak eta familia*; 2. *Irakasleak*; 3. *Gizarteko pertsonaia prestigiodunak*, izan bada, nerabezaroran hau alderantzikatu egin da. Gertuko erreferentziek garrantzia izango duten arren (ingurune hurbileko pertsonak, begiraleak, kirol entrenatzaileak, herriko gazteak,...), 14-15 urte dituen gaztearentzat beste berri batzuk gailenduko dira (gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera: entzute handiko pertsonak,

---


***Komunikabideak oro har, eta telebista bereziki, gailendu diren gazteen munduan, aisiak halako garrantzia hartu duenean, momentuko sentsazioek eta plazerak agintzen dutenean, bizitza osasuntsua obsesio bihurtu denean edo irudi pertsonalak hainbesteko kezka sortzen duen garai honetan, euskarak ere esparru horietara hurbildu beharko du: idolo mediatikoak, modari lotutako pertsonaiak, musikako eta zinemako pertsonaia ezagunak, kirolariak,... Horietakoak dira gazteen eguneroko elkarrizketetan agertu ohi direnak.***

**Gazteen euskararen erabileran eragiteko esparru inportantea da denbora librearena. Inork zalantzan jartzen ez duena da hori, gazteen bizitzetan okupatzen duen denboraz gain, hizkuntzaren erabilera, batez ere, konpetentzia informaletan oinarritzen baita, esparru formaletatik kanpo aisialdian egiten den hizkuntzaren erabileran hain zuzen ere.**

agintariak, kirol edo musikaren munduko idoloak,...). Heldutasu-nera daraman iragaitea hasi du eta haurtzaroko dependentziatik independentziara eta gizarteratze autonomorako bidea hasi du (agian norbaiti topikoa iruditu arren, nahikoa da askotan gurasoek edo irakasleek zerbait esatea, nerabeak kontrakoa egin dezan). Gizartean zein toki duen eta norbera nor den bilatzen hasi da. Horretan bere ingurunean topatuko dituen eredu berriak izango ditu lagun, ez, ordea, umetan bezain gertukoak eta ezta halako lotura afektibodunak ere.

Horago hitz egin dugu nerabeengan ematen den imitazio indarrak. Kontua da gaur egungo gazteek sozializazio prozesu berri horretan, euskararen behar eta bizipen berriak izango dituztela. Galdera, beraz, erraza da: non topatuko dituzte beren erreferente izango diren eredu eta idoloak?

Adibidez, duela 30 urteko Euskal Herrian, bizi zen testuinguru historikoak eraginda, politika zen gazteen erreferente nagusia eta ia bakarra. Horren baitan sortzen ziren gazteen eredu eraginkor bilakatzen ziren pertsonaiak (garaiko pegatinatan eta karteletan ikus daitezkeenak). Baina aipatu dugu gaurko gazteek politikarekiko eta, oro har, gauza publikoetarako duten interes falta. Argiago ageri da hori beheko grafikoan<sup>13</sup>. Bertan azaltzen diren emaitzak gazteei euren bizitzan garrantzia zein alorrek duten galdetuta lortutako datuak dira. Erantzunak aztertuta, gazteen bizitzaren dimentsio pertsonalek (familia, osasuna, dirua irabaztea, lagun-sareak, lana, sexu asebetetasuna...) dimentsio publiko-kolektiboek baino garrantzi handiagoa dutela esan daiteke Gipuzkoako gazte gehienentzat. Are gehiago, politika-gaiekiko interesa eta alderdi erlijioso eta espiritualez kezkatzea dira, oso nabarmen gainera, Gipuzkoako gazteek gutxien baloratzen dituzten atalak.



Komunikabideak oro har, eta telebista bereziki, gailendu diren gazteen munduan, aisiak halako garrantzia hartu duenean, momentuko sentsazioek eta plazerak agintzen dutenean, bizitza osasuntsua obsesio bihurtu denean edo irudi pertsonalak hainbesteko kezka sortzen duen garai honetan, euskarak ere esparru horietara hurbildu beharko du: idolo mediatiakoak, modari lotutako pertsonaiak, musikako eta zinemako pertsonaia eza-gunak, kirolariak, ... Horietakoak dira gazteen eguneroko elkarrizketetan agertu ohi direnak. *En el contexto actual, frente al decreciente desinterés de los jóvenes por la política, la música aparece como un espacio de mayor relevancia para la constitución de identidades*<sup>14</sup>. Telebistak ere izugarritzko indarra du eta gu-rean ikus dezakegu, adibidez, pilotariekin edo bertsolariekin gertatu dena medio horretan agertzen hasi zirenetik. Telebistak modako bihurtu ditu eta, horri esker, gazteek ezagutu egiten dituzte, askorentzat erreferente bihurtuz. Bestalde, literaturako erreferentziak, esate baterako, uste dut zeharo galduta daudela. Gaztelaniak baditu bere Bisbal, Operación Triunfo edo Munduko garaipena lortu duen futbol selekzioa. Hemen, ordea, ETBk arrakasta duen programa bat egitea lortzen du, *El conquistador del fin del mundo* programarekin lortu duen bezala, baina gaztelaniaz egiten du, nahiz eta bertan agertzen ziren pertsonaia asko euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatu. Adibide batzuk baino ez dira hauek, sinpleegiak agian, eta gaia aztertzea merezi luke sakonago baina argi dagoena da, modan dauden kirolari, musikagile eta artistak behar dituela euskarak. Literatura aipatu dudanez Hasier Etxeberriaren blogean irakurri dudana aipamen iradokitzaile honekin amaituko dut:

Arrazoa zeukan gaur egunean euskararen alde gehien egin zezakeena Madona dela zioen hark. Gauzak dauden moduan, ez kanpaina instituzionalik, ez euskaltegirik, ez bestelakorik, ez da iritsiko Madonnaren mailara. Star system delakoaren izen handi batek euskaraz egingo balu kantu bat, horietako hit parade bat, akaso orduan bai, orduan modan jarriko litzateke euskara nerabeen eta gazteen artean, hainbeste Ukan eta hainbeste Kilometroak-en beharrik batere gabe. Aitor dezagun egia: gaur, gazte askorentzat, euskarari kalimotxo eta txosna usaina dario. Edo okerrago, gasolina eta bolbora usaina. Edo are gaitzagoa, eskola, irakasle eta kalifikazio usaina. Gainera, zer arraiotarako behar dute hizkuntza nardagarri hori? Ederki asko bizi dira los aitas halakorik gabe. Euskara pelmada bat da, Lizardi, Detxepare eta hori guztia. Ez duzu konparatuko Paulina Rubiorekin edo Van Gogh-en Belarriarekin. Atsekabera baino, atsegina jotzen duen aberea baita gizakia. Gaur eta hemen, gazteek ez dute euren kontsumo beharra osorik euskararen bitartez bizitzeko aukerarik, musika, moda, internet... Liluragarri suertatzen zaizkien gauzarik gehienak, beste hizkuntzetan jaso beharrean aurkitzen dira, euskararen industria ez baita gauza globalizazioaren uholdeari aurre egiteko. Horregatik izango da, ligatzeko orduan, gaztelaniara eta frantsesera jotzen dutela kasurik gehienetan. Euskara ez da batere cool. Badakit sinpleegi ari naizela jotzen azterketa honetan, topikoak baizik ez ditudala aipatu orain artean, eta badirela kontrako kasuak ere, baina liburuaren kontsumoari begiratzea aski da egoera ez dela txantxetako ikusteko: EAE-n saltzen diren ehun liburutatik, hiru bakarrik dira euskaraz, ingelesezkoen pareko, ia. Zifra horiek larriagoak dira gainerako industria kulturetan: zinean, antzerkian, musikan... Horixe egoera.

***Nerabeen gizarteratze prozesuan musika entzuteak badu garrantzia berezia. Izan ere, gazteen praktika kulturalen artean musikarena da nagusienetakoa. Nerabeek familiarekiko independentea izan beharra sentitzen du eta esan dugu, adin honetan, rol berrien bila dabilela. Zein gizarte esparrutan integratu aukeratzan dabil eta independentzia hori gizarterako beste talde batzuekiko dependentziak ordezkatu du. Aldaketa hauetan musikak protagonismo berezia hartzen du eta hau ere baloreak ezartzeko bide eta tresna bilakatzen da.***



## 2. GAZTEAK ETA MUSIKA


Aurreko atalean komentatu dugu postmodernitateak gaur egun aisia edo denbora librea gazteen lehentasunezko baloreetako bihurtu duela. Hala islatzen da ere gazteek beren bizitzetan garrantzia ematen dioten esparruei buruzko taulan ere (bataz bestekoa 7,8). Ikerketen arabera, gazte gehienek adierazten dute batez beste hiru ordu libre baino gehiago dituztela lane-gunetan<sup>15</sup>. Beraz, gazteen euskararen erabileran eragiteko esparru inportantea da denbora librearena. Inork zalantzan jartzen ez duena da hori, gazteen bizitzetan okupatzen duen denboraz gain, hizkuntzaren erabilera, batez ere, kompetentzia informaletan oinarritzen baita, esparru formaletatik kanpo aisialdian egiten den hizkuntzaren erabileran hain zuzen ere.

2. Taula. LANEGUNETAN, NAGUSIKI ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN? ETA ASTEBURUETAN?

	GUZTIRA	LAN EGUNETAN	ASTE BURUETAN
Lagunekin edo bikotekidearekin egon	71	45	59
Telebista, bideoa edo DVDa ikusi	55	49	21
Musika entzun	46	42	16
Tabernetara edo kafetegietara joan	37	10	33
Kirola egin	35	26	22
Etxean ordenagailuarekin denbora-pasa aritu	28	24	9
Atsedean hartu, ezer ez egin	28	13	19
Familiarekin egon	28	19	16
Diskoteka edota dantza-aretoetara joan	24	1	23
Paseatu, kalean egon	23	11	17
Irakurri (liburuak —ez ikastekoak—, egunkariak, aldizkariak,	20	18	5
Ikuskizunetara joan (musika, zinema, antzerkia)	13	2	12
Bideo-jokoaren kontsolekin edo ordenagailuko jokoekin aritu.	12	10	4
Telefonoz hitz egin, mugikorrez mezuak bidali	11	9	4
Dendetan, erosketetan ibili (ez ohiko erosketak)	10	4	7
Mendira joan	9	3	9
Kalean edan	6	1	6
Kirol-ikuskizunetara joan	6	1	5
Kultura jarduera jakinak (dantza, musika-tresna bat jo, pintatu...)	4	3	2
Joko-aretoetara joan	2	0	2
Elkarteetako edo borondatezko lanak	2	1	1
Ziberrera joan	2	1	1
Bestelako zaletasun edo hobbyak	7	4	4
Ed/Ee	6	4	4
MAIZTASUN ABSOLUTUAK	1.500	1.500	1.500

Goiko taulan ikusten denez, berriz, gazteen aisialdiko jarduerarik ohikoena, lagunekin edota bikotekidearekin egotea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea eta musika entzutea dira. Bestalde, 15 eta 17 urte arteko nerabeen aisiari erreparatzen bazaio, nerabeek beren denbora librean gehien egiten dituzten aisialdiko jarduerak gainerako gazteek aipatutako berberak dira: lagunekin edo bikotekidearekin egotea, musika entzutea, telebista, bideoa edo DVDa ikustea, kirola egitea eta etxean ordenagailuarekin denborapasa aritzea (denak 15 eta 17 urte arteko nerabeen %40k baino gehiagok aipatuak). Bertan ageri denez, horien atzetik doaz diskoteka edota dantza-aretoetara joatea, ezer egin gabe atseden hartzea, tabernetan ibiltzea, paseatu edo kalean egotea, familiarekin egotea, bideo-jokoaren kontsolekin aritzea, irakurtzea eta telefonoz hitz egitea edo mugikorrez mezuak bidaltzea.

Datuon arabera eta, oro har, orain arte esandakoaren arabera, nerabeen gizarteratze prozesuan musika entzuteak badu garrantzia berezia. Izan ere, gazteen praktika kulturalen artean musikarena da nagusienetakoa. Nerabeak familiarekiko independentea izan beharra sentitzen du eta esan dugu, adin honetan, rol berrien bila dabilela. Zein gizarte esparrutan integratu aukeratu dabil eta independentzia hori gizarterako beste talde batzuekiko dependentziak ordezkatu du. Aldaketa hauetan musikak protagonismo berezia hartzen du eta hau ere baloreak ezartzeko bide eta tresna bilakatzen da. Portaerak moldatzeko indarra du eta jokaera ereduak ematen ditu. Gazteak beren identitate soziala eraikitzen ari dira eta musikaren bidez mundua ulertzeko modu bat jasotzen dute eta gehienetan horiekin identifikatzera iristen dira. Honela, gurasoekiko identitate ezberdina ezartzeko aukera izaten dute, hau da, beren independentzia eta errebeldia azaltzeko bidea izango da askorentzat. Desberdin izateko aukera bat, bi hitzetan esateko.



Iturria: Arrasateko Arizmendi ikastolako DBH eta Batxilergoko gazteei egindako inkesta.

Desberdindu nahi hori, beraz, familia eta eskola ordezkatu dituzten gizarte-taldeen identifikazioak emango dio gazteari. Eta talde horiek, beti horrela ez bada ere, musikaren inguruan eraten dira eta horietatik hartuko dituzte baloreak, sinismenak, jokaera ereduak eta, batzuetan, hizkun-

***Nerabeei egin diegun geure inkestaren emaitzen arabera, nerabeen %95ek, ordenagailuan ari direnean, musika entzuten dute. Ia erdiek eskolan agindutako etxeko lanak musika entzuten egiten dituzte. Lagunekin ateratzen direnean zein tabernatarara joan aukeratu behar dutenean ere, % 82k horietan jartzen duten musikaren arabera aukeratu dute. Musika da, bestalde, lagunekin gehien konpartitzen dena. Gazteei musika bila nora jotzen duten galdetu zaienean % 91ek internet bidez lortzen duela esan du. Baina %67k dio musika lagun bidez eta hauekin banatuz eskuratzen duela.***

tza bera ere bai. Gainera, ia beti, musikari lotuta musikatik kanpo dauden balio eta praktika kultural asko ere agertzen dira. Identitatearen elementu bihurtuko diren janzkera, orrazkera, diskoen portadak, hizkuntza, kami-setak, irudiak, estetika, hizkera eta sinboloak eskuratzen dituzte, esate baterako eta lehen esan bezala, mundua ulertzeko modua osatzen joango dira<sup>16</sup>. Ez da ahaztu behar aurreko atalean idolo eta erreferentziei buruz esan duguna. Nerabezaroan imitazio indarra oso handia da eta identifikatutik sentitzen den ereduak bilatzen ditu. Musikak asko eskaintzen dizkio eta musikariekin eta kantekin identifikazioa bilatuko dute askok.

Izan ere, musikak baloreak ezarri eta portaerak sortzen ditu. Janzkerak, orrazkerak, hizkuntzak, sinbolo bihurtzen diren objektuak (ondasun musikalak kasu honetan) eskuratuz bihurtzen dira gazteak subjektu kultural. Hau da identitatea eraikiko dute eta mundua bizi eta ulertzeko modua garatuko dute. Gazteek taldeak osatzen dituzte eta kulturaren kontsumoak identifikatu eta batu egiten ditu. Kohesio elementua, beraz, musika izango da eta askotan taldekideen sinismenak hortik abiatuta sortzen dira. Ezberdintasunak markatuko ditu, orijinalak, independenteak eta rebeldeak izateko aukera ematen die. Bizitza estiloa eskaintzen die.


Idea hauek argiago gera daitezen, Jackeline Urla antropologoak Negu Gorriak taldearen inguruan idatzitakoa<sup>17</sup> aipatu nahi nuke, benetan interesgarria eta argigarria baita. Egileak Negu Gorriak taldearen konpromiso linguistikoa azpimarratu nahi du, beti euskaraz kantatzeko erabakia hartzen duenean. Beste taldeen ondoan, horiek ez zuten izena bakarrik euskaraz. Euskara ez zen bakarrik zerbait sinbolikoa. Beste garaiko rock talde gehienek hitz batzuk euskaraz erabiliz, edo gaztelaniaz egin arren euskal ortografia erabiliz gaztelaniaren mundutik aldentu nahi zuen mugimendu kontrakulturala egin nahi zuten. Negu Gorriak, ordea, kontziente zen euskal gazteentzat betetzen zuen eredu funtzioaz, horiek janzkerari, erabiltzen duten hizkuntzari edo laguntzen dituzten kausei ematen zieten zentzuaren inguruan. Agertoki publikoetan euskara erabiltzeak askoz ere karga sinbolikoagoa du eta, antropologoaren ustez, hauek militantziara, antolakuntza politikora eta euskaldun izatearen harrotasunerako deia egin izan zuten, musika, irudiak, janzkera, sinbologia eta, oro har, estetika bat zabalduz, gero jende gazteak bere egingo duena eta aldatu ere aldatuko duena, espresio forma berriak sortuz.

Adibide honetan, beraz, musikaren aspektu soziologikoa nabarmen geratzen da eta esandakoaren argitan ulertu daiteke nola gehien bat, gazteak diren, musika kontsumitzen dutenak. Goizean jaikitzen direnetik lotara joan arte musika entzuten dute. Edozer gauza egiten ari direla, hau da, kirola, etxeko lanak, atsedena hartu, lagunekin ibili, ikastolara bidean edo tabernetan egon, esate baterako, musika entzuten ari dira. Nerabeei egin diegun geure inkestaren emaitzen arabera, nerabean %95ek, ordenagailuan ari direnean, musika entzuten dute. Ia erdiek eskolan agindutako etxeko lanak musika entzuten egiten dituzte. Lagunekin ateratzen direnean zein

tabernatara joan aukeratu behar dutenean ere, % 82k horietan jartzen duten musikaren arabera aukeratzen ditu. Musika da, bestalde, lagunekin gehien konpartitzen dena. Gazteei musika bila nora jotzen duten galdetu zaienean % 91ek internet bidez lortzen duela esan du. Baina %67k dio musika lagun bidez eta hauekin banatuz eskuratzen duela.

Aisialdiko ekintzarik inportanteena bihurtu da musikaren arloa. Askok beste ezer egin gabe entzuten dute musika, baina gehienek musika entzuten dute beste zerbait egiten ari direnean ere. Aisialdian egiten dituzten gauza askori lotuta dago musika (lagunekin kalean, tabernetan, ordenagailuan aritzean,...). Baina ez bakarrik denbora librean egiten direnekin, ikastolarako bidea, ikastolan bertako atsedendietan, etxeko lanak egitea edo ikastea bera ere musikarekin egiten baitute askok. Ordenagailutik egindako deskargak, telebistako bideo musikalak, musikarekin lotutako web orriak, irratiak, hainbeste hedatu diren kontzertuak, edozein festa edo, taberna zein kalean gauean dagoen giroa, besteak beste, musikarekin zuzenean erlazionatuta dauden gazteen aisialdi esparruak dira. Esate baterako, Estatu Batuetan hego-ekialdeko hamar hiritan egindako ikerketa baten arabera, 14-16 urte tarteko gazteek astean 40 orduz entzuten dute musika<sup>18</sup>. Adin horretako Arrasateko gazteei egindako inkestaren arabera, ia erdiak (%47k) 2 ordu baina gehiago ematen ditu egunero musika entzuten. Sexuei dagokionez, berriz, alde askorik ez dagoen arren, neskek dira musika gehiago entzuten dutenak, mutilen %34k egunean 2 ordu baino gehiago entzuten dituen bitartean nesken % 50 baita kopuru horren inguruan dabilena.

**“Musika barik dana da sosua. Te alegra”.**



Iturria: Arrasateko Arizmendi ikastolako DBH eta Batxilergoko gazteei egindako inkesta.

Gauzak honela, gazteen sozializazioan elementu inportantea bilakatu da musika. Kontua da gizarteratze elementu honek gazteen euskalduntzea bultzatzen duen ala ez. Izan ere, hizkuntza gazteek kontsumitzen dituzten

**Musika, beraz, elementu sozializatzaile inportantea da gazteen bizimoduan. Baina badira musikari lotuta dauden beste zenbait kontsumo gai ere eta ia musika bera bezain inportanteak direnak gazteentzat. Grafikoan ageri denaren arabera egunkariak eta aldizkariak dira gutxien erabiltzen dituztenak. Aldiz, interneteko web orriak, kamisetak eta kontzertuak dira gehien.**

objektuei lotuta dago eta aztertu egin beharko da horrek gazteek euskara erabil dezaten lagundu ala galarazi egiten duen. Kontsumitzen duten musikaren mundu hori ez bada euskaraz, hortik jasotzen dituzten ereduak ez badira euskaldunak, identifikatzen diren ereduak euskara alde batera utzia badute edo erabilera sinbolikoa baino ez badute egiten, gazteen erdararako joera indartzeko arriskua dago.

### 3. ARRASATEKO GAZTEAK ETA MUSIKA

#### 3.1. Gazteen musikarekiko jarrera

##### *Musika*

"Edozein momentutan entzuten dozu musikia. Ez dakit nola esplikau. Musika barik... Kalian, mobilean, etxian, deberiak eitten, ordenadorian zabiltzanian, a la play... Cuando se puede".

"Musika dana da".

"Jaiki, dutxau, gosaldu, etxeko lanak, autobusean, kalean batzuetan. Eitten dozu gurozuna musika entzuten. Irten zapatuan eta musikia da dana, dantzatzeko,... Gelditu lagunekin, hasi pipak jaten eta musikia, tabernetan ere bai,... Zaz al loro".

"Musikagatik aukeratzen dou tabernak. Ez bakarrik baina inportantia bada. Taberna batzuetara ez gare joaten horregatik. Abertzaleak eta euskara eta halako tabernetan jartzen dauiei musika de patxanga".

"Musika barik dana da sosua. Te alegre".

"Motibau eitten zaittu (musikak), aktibau".

"Zerbait egiten ari bazara ordenagailuan eta musika falta bada,... es que, derri-gor egon behar du musika atzian".

"Da más animado. Eitten dituzu gauzak con más garbo".

##### *Kontzertuak*

"Kontzertuak normalean erderaz die"

"Igal da euskeraren inguruko kontzertua, baina gero han dauen girua ez da euskera euskera. Igual grupo batzuk eitten dauie euskeraz baina ia dena erderaz da".

"Nahiz eta eurak (musikariak) euskeraz jakin, erderaz eitten dauie geixenetan".

"Des-kontrolen kontzertu batean de todo entzuten da. Aunque abestixak izan euskeraz geixen bat erdera entzuten da".

"Arrasaten dien kontzertuak die estilo batekuak. Punk estiloa. Joaten zara gehi-go giroagatik eta ez musikagatik. Pagatu bihar bada ez. Total ez zaigu gustatzen eta, giroagatik bakarrik".

"Dena gazteleraz hitz egiten da. Abeslariak ere kantatzetik aparte gazteleraz hitz egiten dute".

"Gero joaten zara Oñatiko Gaztetxera eta han dana euskeraz. Danak die borrokak... Akostunbrauta dazelako beti euskeraz eitten. Nahiz eta musika erderaz izan. Beti eitten dauie euskeraz".

##### *Kamisetak*

"Kamisetak tabernetan edo Vitorixan (La Fundi) erosten dou. Beti die igualak. Danak die erderaz".

"Hobeto geratzen die (izenak) erderaz, nik uste dot. Jendiai geixau atraiduten dotza".

"Arrasaten jendia jazten da entzuten duen musikaren arabera eta mutillak batez be. Doiez kamisetiakin,... Eskorbuto ta halakuak. Mutiko danak dabilta kamisetakin".

"Zu zoaz klase batera eta ez dozu ikusten marrartzuta Gatibu eta halakoak. Ikus-

ten dozu Cicatriz, Rip, Eskorbuto... Kamisetak ere bai.”  
“Izenak denak die ingelesez. Inglesez dena gogorragoa da. Ez dau ulertzen ezer, baina... Motherfuckers izenaren partez jartzen dozu horren itzulpena eta ez da iguala. Euskeraz ez da ondo geratzen. Ohitura falta da.”  
“Guk entzuten ditugun taldeen izenak ia danak die ingelesez.”  
“Indarra ematen dio. Euskeraz jartzen diozu izena taldeari eta jediak pentsatzen du: esto qué será. Jendeari no le suena. Gantxo gehiago du ingelesez ala gazte-leraz”.

Gazteen artean musikak leku inportantea duela erakusten dute aipamen hauek

“Musika dana da”  
“... es que derrigor egon behar du musika atzian  
“musika barik dana da sosua”.

Gainera musika beti dago presente egiten dituzten gauzetan, musika entzuten dutenek nagusiki beste zerbait egin bitartean entzuten baitute

“Jaiki, dutxau, gosalduta, etxeko lanak, autobusean, kalean batzuetan. Eitten dozu gurozuna musika entzuten...”

Jaikitzen direnetik ohera joan arte entzuten dute eta asko musika entzuten lokartzen dira. Musika hondo-musika bezala erabiltzen dute gazteek

“Zerbait egiten ari bazara ordenagailuan eta musika falta bada,... es que, derrigor egon behar du musika atzian”.

Bestalde, aurreko atalean aisiaz hitz egin dugunean ez ditugu bereizi as-  
tegunak eta jai egunak. Lan egunetan gazteek musika, gehien bat, etxean entzuten dute ikasketen inguruan baita beren bizitza eta ia aktibitate guztiak, kirola izan ezik, ikasketetakoak dira. Asteburuetan lagunak, kalea, tabernak eta gaueko kultura agertzen dira. Baina hor ere oso presente dago musika

“...Irtzen zapatuan eta musikia da dana, dantzatzeko,... Gelditu lagunekin, hasi pipak jaten eta musikia, tabernetan ere bai...”

Are gehiago, musika baita tabernak aukeratzeko irizpidea ere

“Musikagatik aukeratzten dou tabernak. Ez bakarrik baina inportantia bada. Taberna batzuetara ez gare joaten horregatik. Abertzaleak eta euskara eta halako tabernetan jartzen dauie musika de patxanga”.

Musika, beraz, elementu sozializatzaile inportantea da gazteen bizimodu-  
duan. Baina badira musikari lotuta dauden beste zenbait kontsumo gai ere eta ia musika bera bezain inportanteak direnak gazteentzat. Grafikoan ageri denaren arabera egunkariak eta aldizkariak dira gutxien erabiltzen dituztenak. Aldiz, interneteko web orriak, kamisetak eta kontzertuak dira gehien. Hurrengo atalean landuko ditugu banan bana horiek, baina kontzertu eta kamiseten gainean diotenari jarriko diogu arreta. Gazteen erdiak baino gehiagok erosten dituzte musika taldeen kamisetak eta askok ez dute ia besterik janzten. Gainera batzuek diotenez CDa baino lehenago doaz kamisetak erostera. Beraz, musika bezain inportantea dela dirudi askorentzat. Hauetako gehienak mutilak dira gainera.

**Bai izenei bai kontzertuen  
hizkuntza erdara  
izatearen arrazoiak hitz  
egiterakoan gazteek  
ohitura azpimarratzen  
dute. Beraz, kontziente  
dira ohitura dela arlo  
horietan, nahiz eta denek  
euskaraz jakin, erdara  
erabiltzea eragiten duen  
faktoreetako bat  
“Ohitura falta da”,  
“Akostunbrauta dazelako  
beti euskeraz eitten”.  
Baina ohitura bat oso  
orokorra denean azkenean  
“normalizat” hartzen da  
eta hala adierazten dute  
gazteek.**

“Arrasaten jendia jazten da entzuten duen musikaren arabera eta mutillak batez be. Doiez kamisetiak, ... Eskorbuto ta halakuak. Mutiko danak dabilta kamisetakin”

“Zu zoaz klase batera eta ez dozu ikusten marraztuta Gatibu eta halakoak. Ikusten dezu Cicatriz, Rip, Eskorbuto... Kamisetak ere bai”.



Mutilen % 60k horiek erabiltzen dituen bitartean, neskek %30ek baino ez dute erabiltzen. Nola kamisetarik gehienak herriko edo bailarako taldeenak diren tabernetan erosi ohi dituzte. Internet bidez ere askok erosten dute. Hala ere azpimarratzekoa da kamisetetan agertzen diren izen eta hitzei buruz diotena.

“Guk entzuten ditugun taldeen izenak ia danak die ingelesez”, “Hobeto geratzen die (izenak) erderaz, nik uste dot. Jendia geixau atraiduten dotza”, “Euskeraz ez da ondo geratzen. Ohitura falta da”. Ia herriko musika talde gehienek izenak eta ateratzen dituzten kamisetak, beraz, erderaz dira eta gainera euskaraz baino egokiagoak ikusten dituzte gazteek erdaraz.

Kontzertuei dagokionez, berriz, %81ek dio hauetara joaten direla. Sexuei begiratu gero, ez dago alde handirik neska eta mutilen artean. Batzuk, hala ere, aitortzen dute musikagatik baino gehiago giroagatik joaten direla

“Arrasaten dien kontzertuak die estilo batekuak. Punk estiloa. Joaten zara gehiago giroagatik eta ez musikagatik”.

Bi gauza dira, ordea, gai honetan nabarmen geratzen direnak Arrasaten. Batetik kontzertuen maiztasuna. Ia astebururo egoten dira bat edo bi kontzertu (ostiral eta zapatua) eta batzuetan aukera gehiago ere egoten da. Arrasatez gain gazteok inguruko herrietara ere joaten dira, Oñati, Bergara edo Elgetara hain zuzen ere. Gehienak gaztetxeetan eta tabernetan izaten dira kontzertuak. Hauez gain Arrasaten bada kontzertuetarako propio den areto bat (“Hiru” aretoa).

Kontzertuei buruz nabarmentzeko bigarren aspektua hizkuntzarena da

“Kontzertuak normalean erderaz die”.

“Igual da euskeraren inguruko kontzertua, baina gero han dauen girua ez da euskera euskera. Igual grupo batzuk eitten dauie euskeraz baina ia dena erderaz da”.

"Nahiz eta eurak (musikariek) euskeraz jakin, erderaz eitten dauie geixenetan".  
"Dena gazteleraz hitz egiten da. Abeslariek ere kantatzetik aparte gazteleraz hitz egiten dute".

Ia denek euskaraz jakin arren gero dena erdaraz egiten dute eta gazteok hipokresia hori salatu egiten dute. Gazteek sumatzen dute musika talde askok egiten duten euskararen erabilera ia sinboliko dela. Hau da, kanta batzuk euskaraz egin arren (batzuk beste batzuk baino gehiago) kontzertuetan taula gainetik esaten dutena eta beren artean hitz egiten dutena gaztelaniaz da. Denak behintzat bat datoz kontzertuetako giroa, nagusiki, gaztelaniaz dela esatean.

Bai izenei bai kontzertuen hizkuntza erdara izatearen arrazoiak hitz egiterakoan gazteok ohitura azpimarratzen dute. Beraz, kontziente dira ohitura dela arlo horietan, nahiz eta denek euskaraz jakin, erdara erabiltzea eragiten duen faktoreetako bat "*Ohitura falta da*", "*Akostonbrauta dazelako beti euskeraz eitten*". Baina ohitura bat oso orokorra denean azkenean "normalizat" hartzen da eta hala adierazten dute gazteek. Gaur herriko ia talde guztiak erdarazkoak izenak dituzte. Baina ez hori bakarrik. Izenei dagokionez gazteek erdarazkoak askoz erakargarriagoak egiten zaizkiela aitortzen dute.

"Euskeraz jartzen diozu izena taldeari eta jendiak pentsatzen du: esto qué será. Jendeari no le suena (euskarazko izenak)".  
"Gantxo gehiago du ingelesez ala gazteleraz".  
"Hobeto geratzen die (izenak) erderaz, nik uste dot. Jendiai geixau atraiduten dotza".

Kontzertuetan ere, nagusiki erdara erabiltzea ohiturak dakarren inertiaren arazoa da. Arrasaten, musikaren munduan, inertiak erdararen alde jokatzeko duela esan genezake, gazteek dioten moduan, inguruko zenbait herritan gertatzen da.

"Gero joaten zara Oñatiko Gaztetxera eta han dana euskeraz. Danak die borrokak... Akostonbrauta dazelako beti euskeraz eitten. Nahiz eta musika erderaz izan. Beti eitten daie euskeraz".

Beraz, ikusi ikusten dute horrek ez duela zertan horrela izan derrigorez eta hori Arrasaten gertatzen dela ohitura bihurtu delako. Aipatzekoa da, gainera, Oñatiko kontzertuetako giro euskaldunaz hitz egiterakoan ia denek harrিতuta hitz egin zutela ("*Danak die borrokak...*").

### 3.2. Gazteak eta musika hedabideak

#### *Nobedadeen berri izateko erabiltzen dutena*

"Kalian, kartelak, tabernetan, interneten my space kontzertuak ikusteko... Telebistan ez, musika mota hori ez jat gustetan, Irratia gaztetxeko Itxungi irraia, denetatik jartzen zuten".

"Mobiletik entzuten dugu kalean, lagunekin batera".

"Periodiko eta aldizkarietan ez".

"Kalian, kartelak, tabernetan, interneten kontzertuak zein dien ikusteko...".

"Internet eta tabernak. Lagunek be bai, elkarren artean pasatu. Erosi ez".

***Bai musika lortzeko bai musikaren gaineko nobedadeen berri izateko gazteek internet erabiltzen dute nagusiki. %90ek jaisten du internetetik musika eta %70ek internet erabiltzen dute musikako nobedadeen berri izateko ere, aldizkari, irrati eta telebista baino askoz ere gehiago gainera.***



“Ez dut ezagutzen euskal musikari buruzko web orrialderik”.  
“Dana internetetik”.  
“Tabernetan entzuten da eta gero gustatu zaizunaren bila zoaz”.

### *Irratia*

“Batzuetan egiten dute berba asko. Nik gurot musika, musika eta musika”.  
“Gazteak musika komertziala bakarrik ematen du, entzule mota batentzat da. Musika mota gehiago entzuten dutenentzat, zabalagoak direnak”.  
“Gaztea irratia eta halakoak... Hori da una mierda. Hor dago musika komertziala. Hor dirua ta dirua dago. Para nada ez dut entzuten. Cuarenta principales moduen da. Azkenean berdina da, bakarrik euskeraz hitz egiten dauieia. Musika berdina”.  
“Euskadi Gaztean musika komertziala bakarrik jartzen dute eta ez EHkoa. Leku guztietan entzuten dena. Hemengoa ez dute jartzen. Beste estilokoak ez dituzte jartzen. Modan dagoena. Gainontzekoak ezer ez. La canción del verano ta halakoak”.  
“Ken 7 eta irradian entzuten direnak, Gose, Su ta Gar, Gatibu,.. telebistan eta irradian badaz, baina ez tabernetan”.

### *Telebista*

“Nik ez dut entzuten kantiñooren bat telebistan agertzen delako. Eskorbuto, RIP eta halakoak ez die entzuten telebistan”.  
“Telebistan agertzen direnak ez, Goiteben lehen bazegoen “Kale kanto”. Han agertzen ziren EHko taldeak eta hola. ETBn eta halakoetan ezer ez”.

Bai musika lortzeko bai musikaren gaineko nobedadeen berri izateko gazteek internet erabiltzen dute nagusiki. %90ek jaisten du internetetik musika eta %70ek internet erabiltzen dute musikako nobedadeen berri izateko ere, aldizkari, irrati eta telebista baino askoz ere gehiago gainera. Izan ere, gazte askok kalea, kaleetako kartelak eta lagun bidez esaten dute izaten dutela nobedadeen berri eta gero jotzen dutela internetera musika eskuratzeko.

“Kalian, kartelak, tabernetan, interneten “my space” kontzertuak ikusteko,... Tabernetan entzuten da eta gero gustatu zaizunaren bila zoaz”.

Internet erabiltzen dutenen ehunekoak nahikoa altua bada ere, web orriarik ezagutzen duten galdetu zaienean internet erabiltzen dutenetatik erdiak baino ez du erantzun baiezkoa eta %40 baino ez da izan gai esateko ezagutzen duen orrialde bakar baten izena. Gehien aipatutakoak “My space”, “40 principales” eta “Gaztea” izan dira. Sexuka banatuz gero, berriz, mutilen aldean neskek orrialde gehiago aipatu dituzte, hiru aldiz gehiago hain zuzen ere. “Gaztea” (gazteek gehien aipatu dutena), adibidez, mutilek ez dute aipatu ere egin.

“Entzuten dauie (neskek) orain ateratzen dena. Aktual. Gu (mutilak) goaz más a lo típico”.  
“Die zabalagoak. Neri erregalatu Gatiburen CDa eta erregalau eitten dot. Neska bati eman eta ba... entzun eitten dau. Gu goaz más al nuestro, geure musikie eta ya está”.

Gazteek beraiek aitortzen dute, beraz, neskek zabalagoak direla musika estiloei dagokionez. Neskek musika mota gehiago entzuten dute eta mutilen aldean baita web orrialde gehiago ezagutu ere.

Euskal musikari buruzko web orrialdeez galdetu zaienean inork ez du aipatu bakar bat ere. Galdetutakoen %4k “Gaztea” aipatu dute. Dena dela litekeena da nahastu izana euskal musika izatea orriotako gaia eta web orri hori ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz egoteaz gain euskaraz egotearekin. Izan ere, beraiek esaten dute “Gaztea”-n ez dela euskal musikaren berri ematen. Nahiz eta euskal talde batzuk agertzen diren, egiten denaren oso zati txikia dela diote. Aipatutako gainontzeko orri apurrak guztia ingelesez edo gaztelaniaz dira eta euskarazko musikak ez du inolako presentziarik beraietan. Esate baterako, “40 principales” edo “Ituns” bezalako orrietara jotzen dute gazteek eta horietan kanta zerrendak ematen dira baina Euskal Herria baino esparru askoz zabalagoak, zeinetan euskal musika agertu ere ez den egiten. Ondorioz, azpimarra dezakegu gazteek ez dutela euskal musikaren gaineko web orrialderik ezagutzen eta internet bidez jasotzen duten informazioak ia ez diela horren berririk ematen.

Musika kontuetarako irratia eta telebistaren erabilera internetena baino askoz apalagoa da, batez ere telebistarena. Telebista %27k baino ez du erabiltzen musika nobedadeen berri izan edo musika entzuteko. Irratiaren erabiltzaile kopurua altuagoa da, %64 hain zuzen ere. Deigarriena, ordea, neska eta mutilen artean dagoen aldea da. Irrati entzuleetatik mutilak %23 baino ez dira eta telebistari buruzkoa apur bat igotzen bada ere, mutilen kopuruak oso baxua izaten jarraitzen du, %28 hain zuzen ere. Seguruenik honek badu erlaziorik nesken musika zaletasunei buruz gorago aipatu dudanarekin, hau da, askoz ere espektro musikala zabalagoa dutela neskek. Entzuten dituzten kateen artean nagusiki “Gaztea” agertzen da, irratia entzuten duten nesken %95ek entzuten baitute. Ondoren “40 principales” dator eta hau nesken %50ek entzuten dute. Mutilen erantzunetan ez dago esanguratsurik den ezer, irratia zergatik ez duten entzuten azaltzeko ematen dituzten arrazoiak ez badira.

Mutilek ez entzutearen bi arrazoi jartzen dituzte. Batetik jartzen duten musika ez dutela gustukoa eta irratiaren dagoen musika komertziala baino ez dela.

“Euskadi Gaztean musika komertziala bakarrik jartzen dute eta ez EHkoa. Leku guztietan entzuten dena. Hemengoa ez dute jartzen. Beste estilokoak ez dituzte jartzen. Modan dagoena. Gainontzekoak ezer ez. La canción del verano ta halakoak”.

Musika errepertorio estua izatea eta errepikakorra izatea da komentatzen dutena, beren esanetan irrati guztietan entzuten baita gauza bera

“Irratian Ken 7 eta horrelakoak jartzen dituzte beti”.

Nahiz eta batzuen programazioa euskaraz izan “Gaztea” irratiaren geratzen den bezala, musikalki “40 principales”, “Cadena 100” edo “Gaztea” berdinak direla diote.

“Gaztea irratia eta halakoak... Hori da una mierda. Hor dago musika komertziala. Hor dirua ta dirua dago. Para nada ez dut entzuten. Cuarenta principales moduen da. Azkenean berdina da, bakarrik euskeraz hitz egiten dauela. Musika berdina”.

---

***Euskal musikari buruzko web orrialdeez galdetu zaienean inork ez du aipatu bakar bat ere. Galdetutakoen %4k “Gaztea” aipatu dute. Dena dela litekeena da nahastu izana euskal musika izatea orriotako gaia eta web orri hori ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz egoteaz gain euskaraz egotearekin. Izan ere, beraiek esaten dute “Gaztea”-n ez dela euskal musikaren berri ematen.***

Azken finean salatzen dutena irrati horiek taldeengandik baino disko-eteetatik gertuago egotea da. Multinazionalek irizpide komertzial hutsekin gidatutako globalizazio musikalaren barruan dagoena, gutxi gorabehera, eta modakoa baino jartzen ez duena, beste musika asko kanpoan utziz. Bada, beraz, irratietan agertzen ez den beste musika bat eta hori botatzen dute faltan irratietan.

“Ken 7 eta irratiaren entzuten direnak, Gose, Su ta Gar, Gatibu... telebistan eta irratiaren badaz, baina ez tabernetan”.

Azkenik, askok esan ez badute ere, musika gutxi jartzea izan da irratiaren ez entzuteko eman duten arrazoia. Irratiaren gehiegi hitz egiten dutela diote eta baten batek EITB irratiaren aipatu duen soluzio bezala, bertan musika ematen baitute etengabe. Horretan euskal musika ere ematen dutela ere esan dute. Gutxi gorabehera lau erdal kanta eta bat euskalduna jartzen dute. Baina bitxia da nola egiten duten hau. Euskarazko kanta jarri aurretik “euskal kanta” esaten dute. Erdaldunak naturaltasun hutsez jartzen dituzten bitartean euskarazkoari izen-abizenak jartzen dizkiote. Ez dut uste horrek mesede askorik egiten dionik euskal musikari. Ezta gazteek euskarazko musika naturaltasunez entzun dezaten laguntzen duenik ere.

Bestalde, esan dugu neskak direla, batez ere, irratiaren entzuten dutenak. Aipatu baino egin ez dituzten irrati kateen artean (“Cadena 100”, “Europa FM”, “Arrasate”, “Eitb”, “Loiola”, “Kiss FM”) “40 principales” (%50) eta “Gaztea” (%95) nabarmendu dituzte.

“Gazteak musika komertziala bakarrik ematen du, entzule mota batentzat da. Musika mota gehiago entzuten dutenentzat, zabalagoak direnak”.

Zioten gazteek neskei erreferentzia eginez. Irrati hauen irizpideak erabat komertzialak dira eta TOP Gaztearekin musika asko kanpoan geratzen da. Zer esanik ez euskal musika taldeak. Ez dut datu zehatzik eta egiaztatu gabekoa da gainera baina “Gaztea” irratiaren Euskal Herriko musikaren %5 baino ez dela agertzen irakurria dut nonbait. Programazioa euskaraz den arren irratiaren azpimarratzen diren taldeak erdaldunak dira (“Ken 7” salbuespena?). Dena den gai honek hemen egingo ez dugun azterketa zehatz eta sakonagoa beharko luke. Baina laburtuz esan genezake irratiaren radiableak baino ez duela tokia eta programazioa euskaraz egiten duten arren bertara euskal musikaren zipriztin batzuk baino ez direla iristen, programazio hori erdalduna baita nagusi. Honekin batera aipatu behar da “Gaztea” irratiak astelehenetik ostiralera EAE eta Nafarroan 90.000 entzule dituela, beraz, gazteen euskararen normalizatorako edozein plangintzak kontuan hartu beharko lukeena dela iruditzen zait.

Telebistari buruzko galderarik egin ez genuen arren, sakoneko elkarriketetan atera zen gaia eta behin baino gehiagotan atera zen puntu bat azpimarratuko dut, hau da, GOITBri egindako erreferentziak.

“Telebistan agertzen direnak ez, GOITBn lehen bazegoen “Kale kantoï”. Han agertzen ziren EHko taldeak eta hola. ETBn eta halakoetan ezer ez”.

Beraz, musika arloari dagokionez kalitate gehiago aitortzen diote euskara hutsez den Arrasateko herri telebistari, beste edozeini (“MTV” edo “ETB1” adibidez) baino. Gazteek diotenez interes komertzialetatik kanpo dagoelako eskaintzen diote tokia mota guztietako euskal musikari.

Honekin batera lotzen dut egunkariei eta irratiei buruz zenbaitek egin duen aipamena ere. Hau da, musikaren berri izateko egunkari eta aldizkariak erabiltzen dituztenen kopurua oso baxua zen eta oso gutxik aipatu bazuten ere, aipatu zuten bakarra “Goienkaria” (Debagoienako egunkaria) izan zen. Gazte askok euskaraz irakurtzen duten bakarra Goienkariak musikari eskaintzen dizkion orrialdeak dira. Goienkaria ostiraletan (doan) eta astelehenetan argitaratzen da. Musikari eskaintzen dion tokia, berriz, zabala da, asteburuko emanaldiak, kontzertuen kritikak edo bailarako taldeen diskoen aurkezpen eta kritikak maiz agertzen dira bertan, oso modu egokian gainera. Antzeko gauzak esan dira (oso jende gutxik esan badu ere) irratitari buruz ere. Itxungi irratia izan da Arrasateko Gaztetxeak martxan izan duen irratia, orain ez badago ere. Oso musika erreperitorio zabaleko irratia zela diote gazteek, irratia askea alegia.

“Denetatik jartzen zuten Eskorbuto, Gozategi, talde inglesak,…”.

### 3.3. Gazteek entzuten dutena

Gazteei pasatu diegun inkestan zein musika mota entzuten duten galdetu diegu. Lortutako erantzunetatik ez dago ondorio erabakigarriarik ateratzeko bezain datu adierazgarriarik. Erantzunak libreak ziren eta 154 talderen izenak jaso ditugu. Oso sakabanaketa handia, beraz. Talde asko eta asko bat edo bi pertsonak baino ez dituzte aipatu. Talde hauek guztietatik gazteen erantzunetan %10era hurbildu eta hortik gora aipatu dituztenak jarri ditugu aldameneko taulan. Datuon irakurketa azkar batean ikusten den lehendabiziko gauza da gehien entzuten diren 3 taldeetatik, eta alde handiz gainera, bi Arrasatekoak direla. “Ken 7” taldea da gehien entzuten den herri-rik kanpoko taldea. Gaur egun 35 musika taldetik gora daude Arrasaten eta hauetako asko agertzen dira aipatuta erantzunetan. Izan ere galdetutako gazteen %77k esan du ezagutu eta jarraitzen duela Arrasateko musika taldeek egiten dutena. Horrez gain nabarmentzekoa da lehenengo geratu diren hirurek euskaraz abesten dutela. “Never Surrender” eta “Ken 7” taldeek dena euskaraz egiten dute eta “Des-kontrol” taldeak gehiena euskaraz egiten badu ere baditu erdaraz egindako kantak.

**Gazteei pasatu diegun inkestan zein musika mota entzuten duten galdetu diegu. Lortutako erantzunetatik ez dago ondorio erabakigarririk ateratzeko bezain datu adierazgarririk. Erantzunak libreak ziren eta 154 talderen izenak jaso ditugu. Oso sakabanaketa handia, beraz. Talde asko eta asko bat edo bi pertsonak baino ez dituzte aipatu.**

3. Taula. Gazteek entzuten duten musika

Musika taldeak	(%)
Des-kontrol	%29
Never Surrender	%22
Ken 7	%22
Cook Sparrer	%12
Melendi	%12
Eskorbuto	%12
El canto del Loco	%10
The Clash	%10
Hesian	%10
Far From Finished	%10
La Oreja de Vangogh	%9
Rancid	%9
Fito	%9
Gatibu	%9
RIP	%8
Subversion X	%8

Aipatzeko da ere hiru talde hauek, nesken aukerak izan direla batez ere. Adibidez “Ken 7” ez du mutil bakar batek ere aukeratu eta beste bi taldeetan bietan, aukeratu dituzten mutilak %30 baino ez dira. “Eskorbuto”, “Subversión X”, “Rip” edo “The Clash” taldeetan berriz ia ez dago horiek aukeratu dituen neskarik. Badirudi, neskek askoz gehiago entzuten dutela euskarazko musika. Bestalde 16 talde hauetatik 4 talde baino ez dira musika guztia euskaraz egiten dutenak eta beste bat da ia dena euskaraz egin duena.

### 3.4. Musika euskaraz, musika erdaraz

“Zuk jartzen bozu euskaldun grupoak, ez dauie lortzen... Geixau atraiduten dau jentia (erderaz izateak). Gaztelera ya te acostumbrás. Hitz egitia erdera, da un poco más gure hizkuntza”.

“Zuk igual eitten badozu punk euskeraz ez da hain... Erderaz da más directo. Hizkuntza direktoa. Euskera da como suabiagoa. No suena... Erdera da como más potente. Joan zaittez kaketara edo vete a la mierda, ez dakit, ez da gauza bera. Da más agresivo”.

“Zailago da euskeraz ondo geratzia kantiñuak. Zeatik... porque suena más suave. Euskeraz punk egiterik badago, baina da zailagoa. Rimak ere zailago dira niretzat. Zailago da topatzea euskeraz kantiño agresibo bat”.

“Azkenian da akostunbretan zarena, erderaz ohitu gare eta hortik hartzen dozu errimak, ideak...”

“Goroto taldiek oraintxe atera dauie CDA eta 9 kantetatik 4 edo euskeraz die. Baina gaztelera eitten dauien kantiñuak dira hobiak. Bueno, más directos”.

“Euskeraz egiten duten taldeak doaz más a askatasuna, independentzia, euskararen erabilera ta halakoak. Honek ematen die dirua taldeei. Igual dirua

baino gehiago daude konprometituta politikoki eta doiez a muerte mobida horietan”.

“Gai guztietaz hitz egin leike, baina drogak, alkohola, etorkizunik ez dago-ela,...pero no se habla. Aparte dago ohitura. Ni akostumbrauta nago erderaz entzuten eta eitten. Euskeraz geixau kostetan jat. No me cuesta baina geixau bai”.

“Euskarazkoen letrak ez zaizkit gustetan”.

“Edade batetik aurrera euskeraz entzuten hasten da jentia”.

“Ken 7 ahotsa ere da tipo Bustamante. Punka da gritar y saltar y para gritar hobeto erderaz. Ez dut imajinatzen Eskorbuto edo La Polla euskeraz”.

“Euskeraz askoz ere agresibitate gutxiago dauke. Da más suave. Hitz konkretuak ez badira erabiltzen... Erderaz eitten dozu esaldi bat eta esaldi baten sartzen dozu pillua gauza. Ahal zarena kejau, ahal dozuna esan. Euskararako biher dozu kantiño luze bat esateko. Eskorbuto esaten duena minutu baten, euskeraz behar dozu lau minutu. Errezago kaptatzen dozu mezua, zuzenago... Soinua ere hobeto geratzen da. Zaila da esplikatzea. Nik esango nuke más directo y concreto. Eta más agresivo. Hitzak te calan más. Más fuerte. Ez da berdina esatea vete a la mierda edo joan pikutara. No sientes la mierda. Hijo de puta eta entzuten duzu sasikumea.. y a dónde vas? Alde batetik horregatik egiten da erderaz. Baina está más generalizado. Ohitura, más normalizado...”.

“Kalian dana erderaz eitten dou, norbait konkretuarekin ez bada. Familian dana euskeraz”.

“Lagunekin neskek eitten dabie euskeraz. Musika euskeraz ere gehiago entzuten dute. Neskek beste zerbait dute buruan: zu zaz klasian erderaz hitz egiten eta esaten dizute: zu ez zara euskalduna... Kontzientziatuta daude. Gehiago entzuten dute Never Surrender Eskorbuto baino euskaraz delako”.

“Arrasaten modan dau ingelesez kantatzia. Pentsatzen dute dala más guay”.

“Neri berdin jat euskeraz ala gaztekeraz ala ingelesez, gustetan jaten bitartien... Nola entzuten doten gaztekeraz euskeraz baino geixau lehenago hartzen dozu, errexagoa da gaztekeraz”.

“Dagoena como actualizado erderaz dago. Ez dakit nola esan. Como que se mueve más. Erdera mugitzen da jentien artien geixau. Da hizkuntza más normal. Bueno, halako mobidetan erdera da arruntena. Inglesa bebai, baina jakin ein bida”.

“Da como que suena mejor erderaz. Azkenien los tacos que dice... euskeraz zer esan biozu... Putakumia naiz (ez daz antzekorik). Puto cabrón putakumia baino hobeto sonetan dau”.

“Gaztekeraz,... Yo creo que está relacionado con la droga. Es más duro. Euskeraz droga ta holan... Jentia uste du euskera ta droga no. Euskera y... euskera y askatasuna”.

“Entzuten dugun musikaren tradizioa ere erderaz da: Eskorbuto adibidez. Ereduak gaztekeraz die: RIP, Cicatriz, Subversión X. Horien eragin handia dago”.

“Hitzak euskeraz erderaz baino gautxiago dako. Gauza gogorrek esateko euskeraz ez dago gauza haundirik... Osea, suena muy mal. Takuak... Barre eitten dotzue. Zu kontzertu batean, es la cruda realidad, entzuten dozu halako gauza bat euskeraz y piensas... estos tíos son muy malos. Edozein hitz arraro, ez dauena ulertzen jendiak. Arranopola ta bejondeizula ta halakuak ez dituzu esan bihar. Se te rien”.

“Gai batzuetarako balio du, Ken 7 bezalakoak”.

“Never Surrender jende askori ez zaio gustatzen euskeraz egiten dutelako, euskaldunei gainera. Dena euskeraz delako y suena mal. Nahiz eta ondo sonetan dauen. Zergatik? Porque se creen más duros así”.

“Entzutean ez da igual. Jendia ohituta dago eta euskeraz entzuten badu, esaten du: zer da hau?... Erderaz da más macarra, indar geixau dauko. Txilliko eitteko erderaz hobeto eitten da”.

“Euskeraz beti igual egiten da letretan. Gaiak bastante berdinak izaten die: juega, mozkorra, ania, familia,... Festarako musika geixau da eta da más pegadiza. Errezago sartzen die”.

“Hemengo taldiek erderaz abesten dute, baina daukie bat edo beste euskeraz. Típico comprometido, igual apur bat ipini biharko dou, bat edo beste euskeraz”.

“Guk edukitzen dogu cargo de conciencia, ze guk erderaz kantatzen dogu. Bultzatu einbida baina azkenian erderaz eitten dou eta entzun ere bai”.

## **16 talde hauetatik 4 talde baino ez dira musika guztia euskeraz egiten dutenak eta beste bat da ia dena euskeraz egin duena.**

**“Euskeraz askoz ere  
agresibitate gutxiago  
dauke. Da más suave.  
Hitz konkretuak ez badira  
erabiltzen... Erderaz  
eitten dozu esaldi bat eta  
esaldi baten sartzen dozu  
pillua gauza. Ahal  
zarena kejau, ahal dozuna  
esan. Euskararako biher  
dozu kantziño luze bat  
esateko. Eskorbutok  
esaten duena minutu  
baten, euskaraz behar  
dozu lau minutu.  
Errezago kaptatzen dozu  
mezua, zuzenago...  
Soinua ere hobeto  
geratzen da. Zaila da  
esplikatzia. Nik esango  
nuke más directo y  
concreto. Eta más  
agresivo. Hitzak te calan  
más. Más fuerte. Ez da  
berdina esatea vete a la  
mierda edo joan pikutara.  
No sientes la mierda”.**

“Nik uste dot dala ohitura. Beti euskaraz egiten dutenak ohitu egiten dira”.

“Ez dakit zergatik egiten duten gaztekeraz eta ingelesez, batzuk euskaraz ere punk musika ona egiten dute eta. Ereduiek gaztekeraz egiten zuten: RIP, Cicatriz, Eskorbuto,... Baina uste dut ohiturgatik dela. Horrela egiten ohitu dira eta kitto. Gainera horrela jende gehiagorengana iristen dira”.

“Orain asko gaztelaniaz egiten da baina euskaraz ere egin leike”.

“Nik herriko taldeak entzuten ditut batez ere. Izenak ia guztiak ingelesez dira, eta kantatu ere denetarik egiten dute. Badago talderen bat dena euskaraz egiten duena, baino beste guztiak denetatik egiten dute”.

“Neri berdín jat musika euskaraz, ingelesez ala gaztelaniaz den. Gustatzen zait eta punto”.

Aipamen hauetan elkarrizketatutako gazteek zenbait gairi buruz dituzten pertzepzio eta iritziak laburtu eta batzen saiatu naiz: entzuten duten musika mota, euskaraz ala erdaraz egotearen aldea, Arrasaten zergatik egiten den hainbeste musika erdaraz, beraiek zer duten nahiago, zergatik ia musika taldeen izen guztiak ingelesez ala gaztelaniaz diren, etab. Orain arte gazteen musika ohiturez esandakoak, berriz, honela labur ditzakegu: kontzertu asko egoten da Arrasate eta inguruko herrietan; Arrasaten, batez ere, gaztelania da nagusi; herriko taldeen izenak erdaraz dira ia denak; Arrasaten musikak indar handia du gazteen artean eta horren adierazle da dagoen talde kopurua (40 musika talde inguru) eta kontzertuen maiztasuna; herriko taldeetatik askok gaztelaniaz eta ingelesez egiten dute eta beste batzuk bietara, erdaraz eta euskaraz. Horiek eta beste batzuk ikusita, berehala ateratzen dugun ondorioa hauxe da: arrasatear gazteek herrian bizi duten musika giroan gaztelania da nagusi. Baieztapen horrek eraman gaitu egin ditugun elkarrizketetan arestian esan ditugun kuestioak gazteekin komentatu eta zertxobait gehiago argitzen ahalegintzera.

Horrez gain, bakoitzak entzuten dituen taldeak zeintzuk diren galdetu zaie gazteei eta aurreko atalean egindako taulan ikusten da zein talde entzuten dituzten. Gehien entzuten dituzten hiru taldeek euskaraz egiten dute musika. Horietako bik (“Never Surrender” eta “Ken 7”) euskaraz baino ez dute egiten gainera. Bestalde, taulan ageri diren 16 taldeetatik 5ek egiten dute musika euskaraz, herenak gutxi gorabehera. Erantzun guztiak kontuan hartuz, ordea, izendatu dituzten talde guztietatik euskaraz abesten dutenak %18 baino ez dira. Beraz, argi dago entzuten duten musika, behintzat, nagusiki ingelesez eta gaztelaniaz dela. Baina ez dirudi hori arazo denik gazteentzat, horien %78k entzuten duen musika euskaraz izan, gaztelaniaz izan ala ingelesez izan ez zaiola inporta baitio “Neri berdín jat musika euskaraz, ingelesez ala gaztelaniaz den. Gustatzen zait eta punto”. Hala ere, abestien letrak ulertzea inporta zaien ere galdetu zaie eta horren erantzunak parekatuagoak izan dira, erdiek baiezkoa esan baitute eta beste erdiek ez ulertzea ez zaiela inporta. Mutilen eta nesken erantzunen artean alde handirik ez dagoen arren, neska gehiago izan da letrak ulertzea inporta zaiola esan duena.

Abestien ulermena dela eta, elkarrizketetan zehar askok esan dute arazo handirik ez dutela izaten ingelesez dauden kantak ulertzeko. Horrek

indartu baino ez du egiten, gehiengoak inportantziarik ez ematea abestien letrek duten hizkuntzari, ulertu ulertzen dituzte eta. Hala ere, ingelesarekin aipatu ez badute ere, zenbaitek gaztelaniazko kantak euskarazkoak baino errazago ulertzen dituela esan du

“Neri berdin jat euskaraz ala gazteleraz ala ingelesez, gustetan jaten bitartiaen... Nola entzuten doten gazteleraz euskeraz baino geixau, lehenago hartzen dozu, errexagoa da gazteleraz”.

Izan ere, ohitura hartu dute gaztelaniaz entzuteko eta ohiturak orokortu ahala joera bihurtzen dira. Ondorioz, normaltzat hartzen hasi dira entzuten duten musika gaztelaniaz izatea eta jakina, ulerterrazagoa egiten ere hasi zaio askori.

“Ni akostumbrauta nago erderaz entzuten eta eitten. Euskeraz geixau kostetan jat. No me cuesta baina geixau bai”.

Erdaraz egiteko ohituraren ondorioz euskaraz hitz egiteko erraztasuna galtzen den moduan, hemen ere antzera pasatzen da. Ohitu egin dira musika hizkuntza batean entzutera. Estetika, doinu, hitz eta espresio modu batzuetara ohitu dira eta hizkuntza aldatzean arrotzagoak egiten zaizkie kantak, hau da, gehiago kostatzen zaie musika entzun, ulertu eta barnerraztea. Hitz bitan esateko, zailagoa egiten zaie musika horrekin identifikaztea. Honen guztiaren ondorio zuzena hau da: gaztelaniaz dagoen musika erakargarriagoa bihurtzen da azkenean, samurrago sartzen baita<sup>19</sup>.

“Geixau atraiduten dau jentia (erderaz izateak). Gaztelera ya te acostumbrás”.

Gaztelaniak betetzen du nagusiki, beraz, gazteen musika munduan funtzio komunikatibo eta praktikoa.

Gazteak konturatzen dira horretaz eta aitortzen dute euren hizkuntzarekiko kontzientzia ez dela batere sendoa. Hau da, duten kontzientzia ez dela nahikoa euskararen aldeko ahalegina egiteko bezain motibagarria

“Guk edukitzen dogu cargo de conciencia, ze guk erderaz kantatzen dogu. Bulzatu einbida baina azkenian erderaz eitten dou eta entzun ere bai”.

Aurrerago aipatu dugun ohiturak indar handiagoa du antza. Honek esan nahi du, batzuk behintzat, ohartzen direla beren inguruan gertatzen denaz baina inertziak erdararen alde jokatzera eramaten dituela. Aldiz, beste batzuek ez dute arazorik ikusi ere egiten, edo behintzat arazorik ez balego bezala jokatzeko dute eta garrantzi guztia kentzen diote inguruan bizi den hizkuntzaren arazoari. Gainera, harriduraz hartzen dute gaztelaniaz hitz egiten dutenean beraiei zerbait esatea.

“Lagunekin neskak eitten dabie euskeraz. Musika euskeraz ere gehiago entzuten dute. Neskek beste zerbait dute buruan: zu zaz klasian erderaz hitz egiten eta esaten dizute: zu ez zara euskalduna... Kontzientziatuta daude. Gehiago entzuten dute Never Surrender Eskorbuto baino, euskaraz delako”.

---

***Aipamen hauetan elkarrizketatutako gazteek zenbait gairi buruz dituzten pertzepzio eta iritziak laburtu eta batzen saiatu naiz: entzuten duten musika mota, euskaraz ala erdaraz egotearen aldea, Arrasaten zergatik egiten den hainbeste musika erdaraz, beraiek zer duten nahiago, zergatik ia musika taldeen izen guztiak ingelesez ala gaztelaniaz diren, etab.***



---

***Baina gazteen ustez zeintzuk dira arrazoiak Arrasate eta inguruko herrietako talde askok, euskaraz jakin arren, musika erdaraz egiteko? Nola pertzibitzen dute fenomeno hori eta beraiek nola kokatzen dira hor? Zein hizkuntzatan daude erosoago? Arazorik sumatzen al dute? Hauen inguruan esan dituzten iritziak nahiko nahasiak dauden arren, oso gauza interesgarriak irten dira elkarrizketetan.***

Berrero ere neskak agertzen dira euskaldunagoak. Euskaraz hitz egiten dute eta musika ere euskaraz entzuten dute, mutilen ustez motibo musikallengatik baino gehiago euskaraz delako gainera.

Baina gazteen ustez zeintzuk dira arrazoiak Arrasate eta inguruko herrietako talde askok, euskaraz jakin arren, musika erdaraz egiteko? Nola pertzibitzen dute fenomeno hori eta beraiek nola kokatzen dira hor? Zein hizkuntzatan daude erosoago? Arazorik sumatzen al dute? Hauen inguruan esan dituzten iritziak nahiko nahasiak dauden arren, oso gauza interesgarriak irten dira elkarrizketetan eta ondorengo ideien inguruan laburtzen saiatuko naiz guztiak:

- Tradizioa: Arrasaten adin horietako gazteen artean nagusi punk-rock musika da eta gazteek diotenez

“Entzuten dugun musikaren tradizioa ere erderaz da: Eskorbuto adibidez. Ereduak gaztekeraz die: RIP, Cicatriz, Subversión X. Horien eragin handia dago”.

Beraz, garai bateko (dena gaztelaniaz egiten zeneko garaikoak) taldeak eredu dituztela, gaur egungo gazteak ez dira gauza izan, edo ez dute nahi izan, horri buelta eman eta euskarara aldatzerik.

- Gazteek ez dute euskaraz egiten kalean:

“Gero ta geixau doie zabaltzen gaztelania gaztien artien”.

“Euskera ez dot entzuten nire inguruan. Musika mota hauetan, gaztetxia, tabernak,... geixen bat gaztekeraz da. Gero ta geixau”.

“Kalian dana erderaz eitten dou, norbait konkretuarekin ez bada. Familian dana euskaraz”.

Gazteak kontziente dira gaztelaniak euskarak baino indar gehiago duela beren bizitzako esparru askotan. Euskarak etxean eta ikastolan bizirik dirau, baina, antza, kalean ez du tokirik. Tabernetan, kontzertuetan, kalean edo gaztetxean normalena gaztelaniaz hitz egitea da. Beraz, funtzio batzuetarako bata eta beste batzuetarako beste hizkuntza aukeratzen dute: halako lekuetan euskaraz eta besteetan gaztelaniaz. Horrelako banaketaren ondorioz, herriko taldeek musika gaztelaniaz egitea ere ez da oso fenomeno arraroa gazteentzat, funtzio edo esparru hori gaztekerarena baita beraientzat. Laburtuz, esan daiteke Arrasateko 14 urtetik gorako gazteak, etxetik eta eskolatik lagun arterako saltoa egiten dutenean euskarak presentzia oso murrizta duen tokietara ari direla salto egiten.

- Gaiak: Oso argiak dira ondorengo aipamen hauek:

“Euskeraz egiten duten taldeak doaz más a askatasuna, independentzia, euskararen erabilera ta halakoak”.

“Gai guztietaz hitz egin leike, baina drogak, alkohola, etorkizunik ez dagoela,...pero no se habla”.

“Gaztekeraz,... Yo creo que está relacionado con la droga. Es más duro. Euskaraz droga ta holan... Jentziak uste du euskera ta droga no. Euskera y... euskera y askatasuna”.

“Gai batzuetarako balio du (Ken 7 bezalakoak)”.

Gazteen pertzepzioa argia da gai honetan: hauen ustez euskarak gai batzuetaz aritzeko balio du eta beste gai batzuetarako, argian balio du baina ez da erabiltzen. Hemen argi ikusten da euskara zerekin lotzen duten gazte askok: “Ken 7” taldeak kantatzen dituen gaiekin bai baina drogaren mundu ilun horrekin ez. Uste dut aipamenek komentario askorik ez dutela behar gazteek dituzten aurreiritzien gaineko ideia egiteko.

- *Zein perzepzio duten euskarazko musikaz eta zerekin lotzen duten:* Honi buruz hurrengo atalean arituko naiz, gai honi buruz ere argi utzi baitituzte beren iritzi eta aurreiritziak.
- Zenbait musika estilo euskaraz egiteko zailtasuna:

“Euskeraz punk egiterik badago, baina da zailagoa. Zaila da topatzea euskeraz kantiño agresibo bat”.

“Bueno, halako mobidetan gaztelania da arruntena. Inglesa bebai baina ulertu einbida”.

“Zuk igual eitten badozu punk euskeraz ez da hain... Erderaz da más directo. Hizkuntza direktoa. Euskera da como suabiagoa. No suena... Erdera da como más potente”.

“Gorroto taldiek oraintxe atera dauie CDa eta 9 kantetatik 4 edo euskeraz die. Baina gaztelera eitten dauien kantiñuak dira hobiak. Bueno, más directos”.

“Ken 7 ahotsa ere da tipo Bustamante. Punka da gritar y saltar y para gritar hobeto erderaz. Ez dut imajinatzen Eskorbuto edo La Polla euskeraz”.

“Orain asko gaztelaniaz egiten da baina euskaraz ere egin leike”.

Iritzi hauek entzun nituenean behin Xabier Montoiari euskal rockaren gaineko dokumental batean entzundakoa etorri zitzaidan burura. Berak zioenez, 70. hamarkadan, Ingalaterran zegoela punkaren mugimenduak eraginda, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen, euskara ikasi eta musika talde punk bat sortzeko. Horrela sortu zuen, Josu Zabalarekin batera, 1981. urtean “Hertzainak” taldea. Honela dio Montoiak gai honen inguruan:

“Esan bezala, musika taldea sortzeko. Nire ustez, punk talde batek Euskal Herrian euskaraz kantatu behar zuen, eta ni erdalduna nintzenez, euskara ikastea erabaki nuen. Euskaraz kantatu nahi nuen eta hori izan zen nire motibazio nagusia. Punk-musika talde batek Euskal Herrian euskaraz egin behar duela uste dut orain ere<sup>20</sup>.”

Arrasatear gazteek, ordea, ez dute hain erraz ikusten musika estilo hori euskaraz egitea. Azken aipuak kontrakoa adierazten badu ere, salbuespena da, gehienek ezintasun nabarmena ikusten baitute musika mota batzuk euskaraz egiteko eta bereziki punk-rock musika. Erdaraz potenteagoa, direktoagoa eta errazagoa omen. Euskaraz imajinaezina, batzuentzat eta oihu egiteko gaztelaniara pasatu beharra ikusten dute.

Zailtasun honen zergatia ere nahikoa argi utzi dute gazteek: *euskarren egokitasun* eza. Gazteen ustez euskarak ez du gaztelaniaren egokitasunik. Eta egokitasun ezagatik nahiago dute gaztelania erabili. Errazago sartzten omen zaie gaztelaniaz. Gertuago eta ulerkorragoa egiten zaie. Hau guztia arrazoitzeko ondorengo azalpenak eman dituzte:

---

***Gehienek ezintasun nabarmena ikusten baitute musika mota batzuk euskaraz egiteko eta bereziki punk-rock musika. Erdaraz potenteagoa, direktoagoa eta errazagoa omen. Euskaraz imajinaezina, batzuentzat eta oihu egiteko gaztelaniara pasatu beharra ikusten dute.***

**Zenbait testuingurutan  
ridikulua izatera ere iritsi  
daiteke euskaraz aritzea.**

**Antza, hitz arraroak  
dauzka euskarak, jendeak  
ulertzen ez dituenak.**

**Beraz, erregistro falta  
nabarmena dute gazteek.**

**Horiek ikastolako  
euskara bakarra  
ezagutzen dute eta oso  
gai dira ikastolan Platoni  
buruzko testu iruzkinak  
egiteko. Baina gaztetxeko  
kontzertuetarako edo  
musika punka egiteko  
euskararik ez dutela  
dirudi.**

- Takoak nola esan ez da asmatzen eta ezagutzen dituzten erdaraz-koen efektu bera eragiten duen espresiorik ez dutenez topatzen, gaztelaniak konpentsatzen du falta hori.

“Da como que suena mejor erderaz. Azkenien los tacos que dice... euskeraz zer esan biozu... Putakumia naiz (ez daz antzekorik). Puto cabrón putakumia baino hobeto sonetan dau”

“Zailagoa da euskeraz ondo geratzea. Como que ez da lortzen efekto bera”.

- Sentimendu batzuk euskaraz adierazteko erraztasunik ere ez dute. Zailagoa eta arrotzagoa egiten zaie euskara. Euskaraz agresibitatea adieraztea oso zaila da. Gazteek errazago hartzen dituzte kanten mezuak gaztelaniaz. Gazteak euskara euren ezaugarri eta egoeratarako egokitu ezinik dabilta

“Txillixo eitteko erderaz hobeto eitten da”.

Ez dute beren jergarik gainontzeko hizkuntza normalizatuetan gertatzen den bezala eta erabileraren poderioz, beharrak eraginda hizkuntza guztietan sortzen joaten diren espresio horien faltan daude. Horregatik adin batera heltzen direnean gaztelaniako espresioekin hasten dira hutsune hori betetzen. Euskara alde batera utzita, gero eta erraztasun gutxiago dute eta gaztelaniaren behar gehiago. Sorgin gurrpil horretatik atera ezinik geratzen direla dirudi esandakoak entzunda:

“Euskeraz askoz ere agresibitate gutxiago duke. Da más suave. Hitz konkretuak ez badira erabiltzen... Erderaz eitten dozu esaldi bat eta esaldi baten sartzen dozu pillua gauza. Ahal zarena kejau, ahal dozuna esan. Euskararako biher dozu kantiño luze bat esateko Eskorbutok esaten duena minutu baten, euskaraz behar dozu lau minutu. Errezago kaptatzen dozu mezua, zuzenago...Soinua ere hobeto geratzen da. Zaila da esplikatzea. Nik esango nuke más directo y concreto. Eta más agresivo. Hitzak te calan más. Más fuerte. Ez da berdina esatea vete a la mierda edo joan pikutara. No sientes la mierda. Hijo de puta eta entzuten duzu sasikumea.. y a dónde vas? Zaila da topatzea euskeraz kantiño agresibo bat”.

- Zenbait testuingurutan ridiculua izatera ere iritsi daiteke euskaraz aritzea. Antza, hitz arraroak dauzka euskarak, jendeak ulertzen ez dituenak. Beraz, erregistro falta nabarmena dute gazteek. Horiek ikastolako euskara bakarra ezagutzen dute eta oso gai dira ikastolan Platoni buruzko testu iruzkinak egiteko. Baina gaztetxeko kontzertuetarako edo musika punka egiteko euskararik ez dutela dirudi. Goizeko ordu txikietan kalean edo kontzertuetan ikastolako gela barruan hitz egiten duten bezala ezin dute hitz egin, ridiculua geratzen baita. Beraz, euskara hori baino ez badakite, nola konpondu arazoa? Euskarazko errekurto faltan gaztelaniara pasatuz. Gainontzeko hizkuntzetan hitzak sortu egiten dira eta gazteek ere beraiantzat norma bihurtuko diren espresioak sortzen dituzte. Horrela hitz egiteko modu berezi horrek adin taldeari izaera propioa ematen dio. Hemen adierazi dutena, ordea, ez da hori. Euskara eskolako, liburuetako edo ikasgelako dute askok eta horregatik diote euskaraz errekurto askorik ez dagoela

gauza batzuk adierazteko eta askotan jendeak ulertzen ez dituen hitzak (hiztegiatako euskara?) erabiltzera jotzen dela.

"Hitzak euskeraz erderaz baino gautxiago dako. Gauza gogorrek esateko euskeraz ez dago gauza haundirik... Osea, suena muy mal. Takuak... Barre eitten dotzue. Zu kontzertu batean, es la cruda realidad, entzuten dozu halako gauza bat euskaraz y piensas... estos tíos son muy malos. Edozein hitz arraro, ez dauena ulertzen jendiak. Arranopola ta bejondeizula ta halakuak ez dituzu esan bihar. Se te rien".

Azkenik, gazteek aitortzen dute gaztelania hobeto menperatzen dutela eta askatasun gehiagoz aritzen direla, euskaraz modu "zuzena" (bakarra) baino ez baitute ezagutzen.

"Idazteko orduen zuk erderaz idazten dozu edozein moduen. Igual esaten dozu edozein barbaridade eta ondo gelditzen da. Euskaraz dana hobeto lotu biozu,... Barbaridadeak esan daitezke euskaraz baina die más ligh".

• *Prestigiarioik gabeko hizkuntza:* Gazteek, musikaren arloari dagokionez behintzat, gaztelaniaren aldean prestigio gutxiko hizkuntzat hartzen dute euskara. Indar gutxi duen hizkuntza da euskara. Gaztelaniarekin ezin du konpetitu gauza batzuetarako

"Euskera da como más suave. Erdera da más potente".

Moda kontua ere bada, antza, modernoagoa edo, esan duten bezala, guayagoa da gaztelaniaz abestea batzuentzat.

"Arrasaten modan dau ingleseaz kantatzia. Pentsatzen dute dala más guay".

*De facto* gazteek hizkuntzen funtzio banaketa eginda daukate. Hizkuntza bakoitzari ematen zaion estatusa eta garrantzia ezberdina da bizitzako esparruaren arabera. Gaztelaniari ematen zaio funtzio komunikatiboa eta praktikoa, musika gaztelaniaz kantatzen baitute. Hala ere euskaraz ere zenbait kanta egiten dituzte, zelanbaiteko konpromisoa erakutsi nahian edo (euskara identitate emaile).

"Hemengo taldiek erderaz abesten dute, baina daukie bat edo beste euskeraz. Típico comprometido, igual apur bat ipini biharko dou, bat edo beste euskaraz".

### 3.5. Zer diote gazteek euskal musikaz?

"Benito Lertxundi ta halakoak aitak jartzen ditu. La típica de hegoak moztuko. Ez dakit, nire aitak entzuten du. Hortik aparte zero".

"Edade batetik aurrera euskaraz entzuten hasten da jentia".

"Me suena a trikitixa, txistu. Da más típico. Kilometroak eta halako mobidetan joten dauien grupuak. Musika hori da juergarako, festetarako,... Aspergarrixa da".

"Badaz taldeak, Deskontrol ta Never Surrender, baina musika tradizionala etortzen da burura. De la tierra".

"Euskal grupuak, Piperrak adibidez. Honek eitten dauie geixena erderaz. Kanpoko jentiak ere entzuten dau. Alaitz eta Maider kanpoan ez da entzuten ezebeaz. Punk erderaz al da aillegau beste lekuetara".

"Lagunak, gelakoak, Mikel Urdangarik eta halako euskal musika entzuterakoan parre egiten dute. Pentsatzen dute gurasoenak moduen. Nola dien lasaixagoak,...".

**Gazteek, musikaren arloari dagokionez behintzat, gaztelaniaren aldean prestigio gutxiko hizkuntzat hartzen dute euskara. Indar gutxi duen hizkuntza da euskara.**

**Gazteei egindako galdetegian euskal musikari buruz ere galdetu zaie, izen horrekin adierazten denaren gainean zer nolako pertzepzio eta aurreiritziak dituzten jakin guran. Izan ere, aurreko atalean aipatu dugun bezala, nire ustez horrek ere badu eragina musika erdaraz egin eta entzutearekin. Interesgarria deritzot gazteek euskal musikaren inguruan zer pentsatzen duten jakiteari. Zer nolako pertzepzioa duten ezagutzeari, askotan aurreiritziak baino ez baitira izaten eta errealitatetik urrun daudenak askotan.**

“Neri ez zait gustatzen. Danak die igualak. Antzekoak”.

“Juerga baterako ondo dago, trikitixa ta halakoak”.

“Begiratzen didate como una marciانا, mutilek geixenak”.

“Lete, Laboa,... Gaiak antzerakoak dira. Neri gustetan jat, baina naz una rara”.

“Ken 7, Benito Letxundi dira, euskal musikarekin identifikatzen dira. Benito Letxundi egon zenian Eskoriatzan ni fan egin nintzen. Vamos ixa ez dau esaten. Eta ez da que me apasiona baina behin datorrela eta ba gustora entzun nuen”.

“Hauek (Benito, Lete, Laboa,...) aparte ez da ezagutzen euskaraz egiten dena. Horregatik identifikatzen da horiekin”.

“Etxeko giroak asko egiten du. Etxean giro euskalduna badago entzuten dute, bestela a inork ez”.

“Kilometroetara joaten gara horiek entzutera. Ez bazaizkizu gaustatzen talde hauek ez zara joaten. Nire klastetik hamar baino gutziago joango lirateke halako festa batera, beste guztiei musika hori ez zaielako gustatzen”.

“Mota asko dago. Tradizionala ere badago, trikitixa ta hola. Musika mota asko egin daiteke, Ekon ta holan,... Gutxi da. Gaztelaniaz dau geixau, beraz, más oportunidad de oír”.

“Festetan entzuten dena. Típicos jaixetan da hola, trikitixa, Mari Jaia,... Beste musika (eukal musika) ez da ezagutzen. Gaztetxeak eta Itxungi irratiaz aparte”.

“Atxabaltan gehienek entzuten dute. Arrasaten más de todo. Han die más abertzales, askatasuna ta halakoak. Azkenean euskara bultzatu, independen-tzia, EH, askatasuna, herria,... Danak die igualak. Euskal musika tradizionala baina baita punk-rock euskaraz egiten dutenak ere. Hau hala ere ez da asko entzuten”.

“Jaixetan jartzen dute, Mila Galdera, trikitixa, Alaitz eta Maider,... Horreik danak die igualak”.

“Neskek entzuten dute asko. Eta abertzaleek”.

“Geixau da kantatzeko ta hola”.

“Badago estilo askotako musika euskaraz baina hori ez da erlazionatzen euskal musikarekin. Never Surrender ez dator burura euskal musika esatean. Baina denetatik eitten da”.

Gazteei egindako galdetegian euskal musikari buruz ere galdetu zaie, izen horrekin adierazten denaren gainean zer nolako pertzepzio eta aurreiritziak dituzten jakin guran. Izan ere, aurreko atalean aipatu dugun bezala, nire ustez horrek ere badu eragina musika erdaraz egin eta entzutearekin. Interesgarria deritzot gazteek euskal musikaren inguruan zer pentsatzen duten jakiteari. Zer nolako pertzepzioa duten ezagutzeari, askotan aurreiritziak baino ez baitira izaten eta errealitatetik urrun daudenak askotan. Euskal musika zerekin lotzen duten ezagutzen badugu, zenbait gauza ho-beto ulertzeko bidean egon gaitezkeelakoan gogo.

Hasteko inkesta horretako emaitzak ikusiko ditugu. Bi izan dira egin-dako galderak: batetik euskal musika terminoa entzuten dutenean burura zer datorkien erantzun dezaten eskatu zaie eta bigarrenik, euskaraz egiten den musika ezagutzen al den eta ezagutzen ez bada, zergatik ez den ezagutzen.

Lehenengo galderaren erantzunak anitzak izan dira oso. Erantzunak oso sakabanatuta daude eta ez da erraza ondorio zehatzak ateratzea hor-tik. Beheko taulan ageri dira eman dituzten erantzunak eta aldameneko zenbakiak ideia hori zenbatek esan duten adierazten du. Gehien errepikatu diren erantzunak hauexek izan dira, gehien aipatu direnetatik hasita: Eus-kara, Trikitixa, Independentzia, Euskal Herria, Jaixak, Aberria, Euskal dantzak, Panderoa, Alaitasuna eta Maitasuna.

4. Taula. Gazteek euskal musikarekin lotzen dituzten ideiak

Euskara	30	Ulergaitza	2
Trikitixa	20	Txistua	1
Independentzia	12	Oi!	1
Euskal Herria	11	Mierda	1
Jaixak	8	Nire estiloa ez	1
Aberria	7	Abertzaleak	1
Euskal dantzak	7	Gau giroa	1
Panderoa	6	Herri bazkaria	1
Alaitasuna	6	Juerga	1
Maitasuna	5	Irrintzia	1
Punk	4	Lau teilatu	1
Txalaparta	4	Gose	1
Kultura	3	Ezer ez	1
Ken 7	3	Faxismoa	1
Lasaitasuna	3	Polita	1
Benito Lertxundi	3	Baztertua	1
Herria	2	Baserritarra	1
Nortasuna	2	Aspergarria	1
Ohiturak	2	Heriotza	1
Garagardoa	2	Jo ta Ke	1
Bertsolaritza	2	Iraultza	1
Motela	2	Basura	1
E Gaztea	2	Mendia	1
Gaztetxia	2	Erromeria	1
Kontzertuak herrian	2	Indarra	1
Letra Laboa	2	Elkartasuna	1
Mikel	2	Hesian	1
Ekon	2	Bizitza	1

Bigarren galdera ea euskal musika ezagutzen duten izan da eta hone-tan %16k baino ez dute aitortu ez dutela ezagutzen. Beraz, gehiengo zabal batek euskaraz egiten den musika ezagutzen duela dio. Jakin beharko ge-nukeena euskal musikaz ari direnean zer duten gogoan gazteek, baina hori ez dago hemendik ondorioztatzerik.

Datuok elkarriketetan gaiari buruz esan dutenarekin batera aztertuta ondorio hauek nabarmenduko nituzke:

- Euskal musikaz ari direnean musika mota bat baino ez dute gogoan gazteek.

"Badago estilo askotako musika euskaraz baina hori ez da erlazionatzen euskal musikarekin. Never Surrender ez dator burura euskal musika esatean".

"Benito Lertxundi ta halakoak aitak jartzen ditu.

"Badaz taldeak Des-kontrol ta Never Surrender, baina musika tradizionala etor-tzen da burura Lete, Laboa,... Hauek (Benito, Lete, Laboa,...) aparte ez da eza-gutzen euskaraz egiten dena. Horregatik identifikatzen da horiekin".

Argi dago, beraz, zer den euskal musika gazteentzat. Ia gehienei Be-nito Lertxundi, Mikel Laboa, Mikel Markez eta halako estilokoak datozkie burura eta musika tradizionala deitu diote horri. Hip hop, Hard-Core, Punk, Pop ala Metala, esate baterako ez datorkie burura.

**Nire ustez inkestetan gazteek (%84) euskaraz egiten den musika ezagutzen dutela esan arren, ez da horrela gertatzen. Ezagutzen dutena euskarazko musika mota bat baino ez da eta ondorioz, horrekin identifikatzen dute euskarazko musika.**

- Eskaraz egiten den musikaren zati txiki bat baino ez dute ezagutzen. Identifikazio horren arrazoia ez da ez dagoela beste estilorik, baizik eta gazteek ezagutzen duten bakarra hori dela.

“Hauek (Benito, Lete, Laboa,...) aparte ez da ezagutzen euskaraz egiten dena. Horregatik identifikatzen da horiekin”.

Izan ere gaur egun euskaraz musika estilo ugari egiten da. Adibidez, Arrasateko zenbat gaztek ezagutzen dute “Bertsound system” egitasmoa? Seguruenik inkestatu ditugunetatik inortxok ere ez. Hemen, ordea, bertso-larritza eta hip hop, jatorri oso ezberdineko mugimenduak harremanetan jarri dira, komunean osagai asko baitituzte bi kulturek: erabiltzen dute hitza gauzak adierazteko, biek dute errima eta biek goxatzen dute hitza melodia eta erritmoaren bitartez... Euskaraz rap musika egiten zuen lehengo taldea dagoeneko 90eko hamarkadaren amaieran sortuta zegoela esan daiteke: “Selektah Kolektiboa”. Ezagutzen ote dute? Hard-core euskaraz egiten duen “Leihotikan” taldeak laugarren diskoa aterata dauka dagoeneko. 80. hamarkadan hasi zen punka euskaraz egiten... Adibideak jartzen luze jarrai genezake. Beraz, nire ustez inkestetan gazteek (%84) euskaraz egiten den musika ezagutzen dutela esan arren, ez da horrela gertatzen. Ezagutzen dutena euskarazko musika mota bat baino ez da eta ondorioz, horrekin identifikatzen dute euskarazko musika.

- Helduen kontua da euskarazko musika.

“Edade batetik aurrera euskaraz entzuten hasten da jentia”.

Eta gaztetan, zer? Hemen ere aurrerago esan duguna ikusten da, Laboa, Lete edo Lertxundik errepresentatzen dute euskal musika gazteen us-teetan.

“Benito Lertxundi ta halakoak aitak jartzen ditu. La típica de hegoak moztuko. Ez dakit nire aitak entzuten du. Hortik aparte zero”. Hori, ordea, gurasoen musika da “Lagunak, gelakoak, Mikel Urdangarik eta halako euskal musika entzuterakoan parre egiten dute. Pentsatzen dute gurasoenak moduen. Nola dien lasaiaxoak”.

- Euskarazko musika abertzaleen kontua da.

“Atxabaltan gehienek entzuten dute. Arrasaten más de todo. Han die más abertzales, askatasuna ta halakoak. Azkenean euskara bultzatu, independentzia, EH, askatasuna, herria,... Danak die igualak. Euskal musika tradizionala baina baita punk-rock euskaraz egiten dutenak ere”.

“Neskek entzuten dute asko. Eta abertzaleek”.

“Euskeraz egiten duten taldeak doaz más a askatasuna, independentzia, euskararen erabilera ta halakoak. Honek ematen die dirua taldeei. Igual dirua baino gehiago daude konprometituta politikoki eta doiez a muerte mobida horietan”.

Euskararen erabilera musikan konpromiso kultural eta politikoarekin lotu dute: euskara bultzatu, independentzia, askatasuna,... Euskaraz egiten den musikak erabiltzen dituen gaiak ere danak berdinak omen dira, nahiz eta musika tradizionala egin edo punk musika egin. Abertzalea ez

denak edo konpromiso horietatik urrutitak, beraz, ez du inolako arazorik izango gaztelaniazko musikara jotzeko, euskarazkoak gustukoa ez duen marka konkretua baitauka. Horren adierazle da inkestari erreparatuz gero, euskal musika zerekin identifikatzen duten esan dutenean gehien errepikatutako hamarretatik hiru Independentzia, Aberria eta Euskal Herria izatea.

- Euskarazko musika parrandarako da.

“Jaixetan jartzen dute, Mila Galdera, trikitixa, Alaitz eta Maider,... Horreik danak die igualak”, “Festetan entzuten dena. Típicos jaixetan da hola, trikitixa, Mari Jaia,...”.

“Kilometroak eta halako mobidetan jotzen dauein grupuak. Musika hori da juergarako, festetarako,... Aspergarria da”.

Gazteak parrandan dabiltzanarako egokia da euskarazko musika baina giro horretatik kanpo aspergarria. Denak berdinak direla diote gainera. Eguneroko bizimoduan, ordea, musikak momentu asko hartzen ditu nerabeen bizitzetan eta beti ez da parranda izaten. Beraz, nekez jarriko dira gazteak euskarazko musikari begira beren ohiko egunerokoan entzun behar duten musika aukeratzeko orduan. Bestalde, euskal musikarekin lotu dituzten ideien artean asko dira gai honi erreferentzia egiten diotenak ere: Trikitixa, Panderoa, Txistua, Garagardoa, Gau giroa, Herri bazkaria, Juerga, Jaixak, Alaitasuna, Erromeria.

- Neskek entzuten dute gehien.

“Begiratzen didate como una marciara, mutilek geixenak”

“Lete, Laboa,... Gaiak antzerakoak dira. Neri gustetan jat, baina naz una rara”

Euskarazko musika neskek gehiago entzuten dutela lan guztian zehar ateratzen ari den ideia da. Gorago ere esan dugu nola mutilek esaten zuten neskek Never Surrender entzuten dutela gehien eta horren arrazoia euskaraz izatea dela esan dute.

- Tradizioarekin lotura handia. Euskararekin lotu dituzten ideietatik asko dira tradiziozko elementuekin erlazioa dutenak: Kultura, Herria, Trikitixa, Panderoa, Txistua, Ohiturak, Bertsolaritza, Irrintzia, Baserritarra, Txalaparta, Erromeria, Euskal dantzak. Maiztasunari begira ere hauek dira gehien errepikatu direnak. Eta sakabanaketa handia dagoen arren erantzunetan, aurreko ideia horiek gaur egungo gazteen bizimoduarekin erlazio zuzenagoa duten ondorengo hauek baino gehiago esan dituzte: Punk, Garagardoa, Oi!, Gau giroa, E Gaztea, Ken 7, Lau teilatu, Gose, Gaztetxia, Hesian, Kontzertuak herrian, Ekon. Euskararen mundua tradizioarekin lotzen dutela esan nahi ote du? Ezin daiteke atera inolako ondorio sendorik halako ariketa sinple batetik. Baina aztertzea litzateke gazteek euskal kultura eta euskara-

---

***Euskararekin lotu dituzten ideietatik asko dira tradiziozko elementuekin erlazioa dutenak: Kultura, Herria, Trikitixa, Panderoa, Txistua, Ohiturak, Bertsolaritza, Irrintzia, Baserritarra, Txalaparta, Erromeria, Euskal dantzak.***



***Nerabezaroan gaztea bere identitate soziala eraikitzen ari den prozesuaren bi ezaugarri nagusi hauek dira: helduen munduarekin apurtzea eta, era berean, helduen mundu hau imitatzeko gazteak duen joera eta beharra. Bestalde, adin tarte horretan hasiko dira hizkuntza portaerak finkatzen, munduarekiko harreman berriak izaten edo beren zaletasunak definitzen.***

rekin (euskal musikarekin berdin) lotzen dituzten elementuek, agian, beren bizipenekin erlazio gehiegirik ez izatearen hipotesia. Musika, gazte-txea edo kontzertuak agertu dira (ez askotan) baina gehiagotan agertu dira trikitixa, euskal dantzak edo panderoa eta nik esango nuke horrelako gauzak ez direla oso ohikoak aipatutako gazteen bizimoduan.

#### 4. ONDORIO NAGUSIAK

##### Gertuko erreferenteak sortu beharra

Nerabezaroan gaztea bere identitate soziala eraikitzen ari den prozesuaren bi ezaugarri nagusi hauek dira: helduen munduarekin apurtzea eta, era berean, helduen mundu hau imitatzeko gazteak duen joera eta beharra. Bestalde, adin tarte horretan hasiko dira hizkuntza portaerak finkatzen, munduarekiko harreman berriak izaten edo beren zaletasunak definitzen. Honetan guztian, adin tarte horretakoek (12-17 urte) berentzat erreferente bihurtu direnak imitatzu jokatzen dute sarritan eta, gaur egun, hauetako asko musikaren munduak eskaintzen dizkie. Beraz, musikak gazteentzako eredu izango diren erreferenteak sor ditzake eta sortu beharko lituzke, nerabeek etapa berri hori euskaraz egin dezaten.

Eredu horien artean, ordea, bereizi behar ditugu 1) komunikabideetatik jasotzen dituztenak eta 2) gertukoak diren erreferenteak. Lehendabizikoei buruz komunikabideez hitz egiten dugunean arituko gara. Bigarrenak, berriz, zuzeneko harremanetan izandako esperientzietatik erreferentzia bezala hartzen diren pertsonak dira, bizitzako beste jardueratan bezala, hizkuntzaren erabileran gazteentzat eredu izan daitezkeenak, alegia. Senide bat izan daiteke (famiaren eragina erlatibizatu egiten da gaztetan), lagun bat, kirol taldeetako entrenatzaileak, aisialdiko begiraleak edo musika taldeetako kideak izan daitezke eredu. Uste dut Arrasaten badagoela herriko musika taldeekin bide honi ekiteko aukerarik. Musika talde ugari dago herrian eta adin horretako gazte askok entzuten dituzte taldeok, neska-mutil (mutilek gehiago) gehienek dituzte euren kamisetak eta astebururo gazte betetzen diren kontzertu ugari egon ohi da herrian. Gainera, taldeok herrikoak direnez ia guztiek gertutik ezagutzen dituzte eta hori oso inportantea dela uste dut<sup>21</sup>. Eta gertutasunaz ari naizenean ez naiz gertutasun geografikoaz bakarrik ari. Adinean gertukoak izatea ere faktore inportantea dela uste dut, gorago azaldu dugun moduan, gazte gehiengoak duen erreferenterik argiena eurak berak direla esango bainuke. Arrasateko musika taldeak, beraz, aproposak lirateke funtzio hori betetzeko. Hala ere talde asko erdaraz aritzen dira eta gutxi dira gazteek euskararekin erlazionatzen dituztenak. Kontzertuetan ere, gaztelania baino ez dela entzuten diote gazteek.

Hori dela eta, normalizaziorako plangintzek aintzat hartu beharko lukete hauek joka dezaketen papera Arrasaten. Euskarazko eta euskararen erreferentzia bihurtu daitezkeen ahaleginak beharko luke nerabeen euskararen

erabileran eragin nahi duen edozein plangintzak. Arrasaten euskalgintzan dabilzanek taldeok nerabeen artean duten indarrak baliatu beharko lukete, izan ere, nerabe askoren erreferenteak badira dagoeneko, baina ez euskararen erabileran. Beraz, horiek euskalduntzea litzateke helburua eta honako ekintza hauek horretan lagunduko luketelakoan nago:

- euskaraz diren lanak promozionatu herrian (tabernetan, adibidez) eta bailaran,
- udalak laguntza bereziak emanaz CDak euskaraz argitaratzen dituztenei,
- kontzertuak antolatuz ohiko zirkuituetatik kanpo (Gaztetxeetan izateaz gain herriko beste tokitan ere izan dezatela tokia euskaraz ari direnek, esate baterako),
- herrian egiten diren euskararen aldeko ekimenetan musikari horien parte-hartzea bultzatu,
- herriko telebistan eta egunkarian<sup>22</sup> lekua izan dezatela euskaraz ari ziren direnek.

### Musika-hedabideen eskaintza zabaldu beharra

Gazteriaz hitz egiten dugu beti, baina, agian, gazteria multzo modura hartzerik ez dago. Gazte asko dago eta aniztasuna ikaragarria da. Adin talde horrek osatzen duen mosaikoa askotarikoa da. Beraz, erreferenteek ere aniztasun horri erantzun behako liokete eta horiek topatzea ez da batere gauza erraza. Hala ere hori da gazteak hartzaile dituzten komunikabideei (Irratia, telebista, egunkariak, internet,...) eskatu behar zaiena. Komunikabideetatik jasotzen dituzte gazteek kirolari, musikari edo bestelako pertsonaia publiko arrakastatsuen ereduak, baita hizkuntzarekiko praktikan ere.

Baina zer diote gazteek komunikabide horien inguruan? Ez dute iritzi oso positiborik eman egun euskaraz zabalduen dauden hedabideei buruz. Eta "Euskadi Gaztea" irratiari buruz esandakoak dira horren lekuko. Labur esateko, musika erreperitorio oso hertsia duela esan dute. Eta egia esan, halako publiko anitzarentzako irrati bakarra izatea ez da oso itxaropentsua. Gazteei zuzentzen zaien eskaintza normalizatu egin behar da eta horrek eskaintza zabalagoa izatea eskatzen du. Arrasaten inkestatu ditugunetatik ia mutil bakar batek ere ez du entzuten euskaraz egiten den irratiarik hedatuena. Zergatik? Irratiak (publikoa) daraman musika ildoak ez duelako gustuko. Eta hori zilegi da, baldin eta eskaintza gehiago ere baldin balego. Birtartean nora jotzen dute gazteek? Esan dutenaren arabera, irrati libreak (Itxungi) eta herriko irrati eta telebista (Arrasate irratia eta GOITB) dira ondoen baloratzen dituztenak, nahiz eta hauek dituzten baliabideak askoz ere urriagoak izan. Euskal musikari buruzko apustu garbiagoa ikusten dute hedabide hauetan eta batez ere, interes komertzialetatik eta faboritismoetatik libre egotea baloratzen dute. Gazte askok esan dute Arrasaten hedatuen da-

---

***Gazteriaz hitz egiten dugu beti, baina, agian, gazteria multzo modura hartzerik ez dago. Gazte asko dago eta aniztasuna ikaragarria da. Adin talde horrek osatzen duen mosaikoa askotarikoa da. Beraz, erreferenteek ere aniztasun horri erantzun behako liokete eta horiek topatzea ez da batere gauza erraza. Hala ere hori da gazteak hartzaile dituzten komunikabideei (Irratia, telebista, egunkariak, internet,...) eskatu behar zaiena.***

***Gazte gehienen ustez euskarak ez du gaztelaniaren egokitasuna zenbait musika mota egiteko. Ez du indarririk, takorik ez dago, bigunegia da punka egiteko, oihu egiteko gaztelaniaz egokiago da eta horrelako beste arazo asko aipatu ohi dituzte gazteek. Adierazkortasun arazoak sumatzen dituzte eta beren behar komunikatiboak (musikari lotutakoak gure kasuan) ezin dituzte asebeta. Halaber, lan egiten dudan Arrasateko ikastolan bertan ikusi dut, musikaz gain beste arlo askotan ere sumatzen dutela gabezia hau ikasleek.***

goen musika punka, adibidez, ez dela agertu ere egiten hedabide publikoetan, talde batzuk Euskal Herrian ezagunak diren arren.

Beraz, nerabezeroan kultur kontsumoak, eta batez ere musikarenak, duen garrantzia ikusita, gauza asko egiteko dagoela ikusten da. Nerabeak komunikabideetan murgiltzen dira eta beren zaletasunak asetzea bilatzen dute. Ondo pasatzea hain zuzen ere. Hauek, ordea, erdararen monopolio dira. Euskaraz dagoena, berriz, oso eskaintza urria da eta horren kontra borrokatzea ia ezinezkoa da. Baina larriagoa da euskaraz dagoen eskaintzak gazte asko eta asko ez asetzea, inkestatutako Arrasateko gazteekin gertatzen den moduan. Horregatik ez da hazi euskarazko kultur produktuen kontsumoa. Inkestetan beraiek zioten gazte askoren musika zaletasunak euskal hedabideetatik kanpo geratzen zirela, beste irizpide batzuen arabera jarduten dutelako. Eta euskarazko kultura kontsumitzen ez bada euskarazko erreferentzia sinbolikoak sortzea ezinezkoa da. Dena dela, musika hedabideei buruzko gaia ur handietan sartzeari dela iruditzen zait. Horregatik Arrasaterako irtenbide erreala goa ikusten dut herriko komunikabideak indartu eta promozionatzea, hauen euskarazko eskaintza musikala zabalduz, gazteen zaletasunak ardatz direla.

### **Euskararen egokitasuna landu beharra**

Gazte gehienen ustez euskarak ez du gaztelaniaren egokitasuna zenbait musika mota egiteko. Ez du indarririk, takorik ez dago, bigunegia da punka egiteko, oihu egiteko gaztelaniaz egokiago da eta horrelako beste arazo asko aipatu ohi dituzte gazteek. Adierazkortasun arazoak sumatzen dituzte eta beren behar komunikatiboak (musikari lotutakoak gure kasuan) ezin dituzte asebeta. Halaber, lan egiten dudan Arrasateko ikastolan bertan ikusi dut, musikaz gain beste arlo askotan ere sumatzen dutela gabezia hau ikasleek. Gazteak ondo moldatzen dira, oro har, behar akademikoetarako egin behar duten euskara jasoarekin. Baina ez dira batere ongi moldatzen, adibidez, txistek kontatu, sexuaz berba egin edo messengeren elkarrizketan aritzeko. Badirudi halako esparru informaletan erdaraz ohituragatik aritzen direla, baina oinarritzko arazoa esparru horietarako euskara egokia ez izatea dela uste dut. Gabezia horrek erdara erabiltzera bultzatzen ditu ikasleak eta gero eta gutxiago erabiltzen dute euskara. Zenbat eta gutxiago erabili, berriz, hainbat eta gaitasun gutxiago dute eta, ondorioz, horrelako arlo informaletan euskara erabiltzeko ahalmen eta ohitura gutxiago.

Ildo beretik mintzo dira “Euskararen kalitatea” txostenean. Bertan diotenez gazte euskaldunen euskara maila, oro har, ez da ona, eta gehienek adierazkortasun arazoak dituzte:

Euskarazko gaitasun pasiboetan trebeagoak dira... Aurrera egin da erregistro jaso-formal- espositiboetan (...) eta atzera berriz, mintzajardunaren esparru informal, barrenkoi-intimoetan..., Gazte akok erregistro bakarreko “estandarra” baizik ez daki. Bestalde, zuzentasuna eta egokitasuna nahastu, eta zuzendu

behar ez lirakeenak ere zuzendu egiten zaizkie askotan “Argota” edo “gazte hizkera” gisa har daitezkeen fenomeno asko “erabilera ez zuzentzat” hartzen dira (jota ona, jebixe, zeba etorri behar dut berandu?, Euskara batuaren izenean sarri askotan hizkuntzaren bariazioa eta bariabilitatea ukatu izan dira, Erdiak baino gehiago (%54) ez daki herriko hizkeraz hitz egiten<sup>23</sup>.

Oso argigarriak dira aurreko aipuak. Hobeto esan, oso argigarria da dokumentu osoa, aurrerantzean gazteekin egin beharreko euskararen gaineko lanaren bideak zein izan behar duen jakiteko.

Inkestetan emandako erantzunetan ere halako arrazoiak agertu dira, Arrasate eta inguruko musika taldeen gaztelaniaren erabilera justifikatzeko, gazteek ere euskara egokitasunik gabe ikusten baitute. Oztopo larria jartzen die horrek gazteei, ez baitute uste euskarak gaztelaniaren egokitasuna duenik eta edozein hitzunez egingo lukeen moduan, errazagoa egiten zaienera jotzen dute, haien kasuan gaztelaniara. Ondorioz euskarak ez ditu erabilerarekin sortzen diren hitzak edo espresioak izatea lortzen. Gazteek ez dute jergarik sortzen eta ezta ere, beraien adin taldearen bereizgarri eta nortasun emaile diren espresiorik ere.

Hizkuntzaren hedapena eta garapena, eskala handiagoan edo txikiagoan, hizkuntza bizi guztietan funtzionatzen duten faktoreak dira. Ezberdintasuna, hizkuntza normalizatueta lan hau kreatiboa izatean datza: errekurtsio naturalak aprobetxatzen dira beharrei aurre egiteko. Beste komunitate baten menpe dagoen hizkuntzan, ordea, lan hau imitatiboa izaten da: komunitate menperatzaileen errekurtsioez baliatzen da, beste hizkuntza (erdara) imitatu eta haren egiturara moldatu nahi izaten da hizkuntza (euskara).<sup>24</sup>

Nondik jo behar da orduan? Hizkuntza normalizatuerei begiratzen badiegu, ikusten dugu lan hori gazteek beraiek egin behar dutela. Alegia, gazteek eurek egokitu behar dute hizkuntza beren beharretara, jergak sortu behar dituzte, hizkera berriak sortu eta euren adinaren ezaugarrietara egokitzen diren espresio berriak sortu. Hori, berriz, hizkuntza erabiliz egiten da eta gazteek hizkuntza erabili beharra dute horretarako. Nola lagundu, beraz, bide hori egiten? Uste dut, adierazkortasun arazo honi aurre egiteko Arrasateko gazteek euskalkiaren bidea ez dutela jorratu oraindik. Arrasateko gazte batek komentatzen zidan, harrituta, Azkoiti eta Azpeitian ikusia zuela nola herriko gazteek gaztetxean zein ikastetxeetan, edo kalean berdin, jartzen zituzten ia kartel guztiak euskalkian zeudela eginda. Bere ustez, horrela lortzen dute herri horietako gazteek bilatzen duten adierazkortasun eta berezitasuna. Gaztetxe tabernako prezioen kartelatik hasi eta ikastetxean ikasleek antolatutako ekintzei buruzko kartel taraino edo kalean itsasten dituzten kartel erreibindikatiboetaraino, denak dira euskaraz. Ez dute gaztelaniara jo beharrik eta euskalkiaren bidez lortzen dute gizarteko esparru formaletan erabili behar izaten duten adierazpide moduetatik aldendu eta bereiztea. Ez dute gaztelaniara jo beharrik gazte bezala beren espresio modu berezitua lortzeko. Euskararen bertan topatzen dute nahi dutena adierazteko tresna, herriko euskarak lagunduta. Horregatik esaten zidan gazte horrek Arrasaten euskalkia landu eta horren erabilera bultzatzea inportantea iruditzen zitzaioela, baldin eta gazteek

***Nondik jo behar da orduan? Hizkuntza normalizatuerei begiratzen badiegu, ikusten dugu lan hori gazteek beraiek egin behar dutela. Alegia, gazteek eurek egokitu behar dute hizkuntza beren beharretara, jergak sortu behar dituzte, hizkera berriak sortu eta euren adinaren ezaugarrietara egokitzen diren espresio berriak sortu. Hori, berriz, hizkuntza erabiliz egiten da eta gazteek hizkuntza erabili beharra dute horretarako. Nola lagundu, beraz, bide hori egiten?***

---

***Gazte askoren ustea da gaztelaniak betetzen duen rola euskararena baino garrantzitsuagoa dela eta euskara eskola edo etxeko esparrura mugatzen dute.***

***Kalean, gaztetxean, tabernetan, teknologia berrietan, komunikabideetan edo musikaren munduan erdarekin lehian dabil euskara eta aurrera egingo badu, aipatu ditugun esparru hauetara zabaldu behar du.***

orain gaztelaniaz dituzten esparruak euskaldundu nahi badira eta horietan euskaraz egitera ohitu daitezten.

Euskalkiaren erabilera hau lantzeko, ordea, arlo informalek izan behar harko lukete ardatz eta musikari dagozkionen artean ondorengoak izan litezke egin daitezkeen gauzak. Egokia litzateke, esate baterako, euskalkian emititzen duen irratia izatea herriko gazteen esku eta hau promozionatzea gazteen artean. Irrati honek euskarazko musika eta musika estilo ezberdinak bultzatuko lituzke. Gazteek esan duten moduan, musika taldeengandik interes komertzialetatik baino hurbilago dagoen irrati bat. Euskarazko musika taldeak protagonista bihurtuko dituen eta euskarazko musikaren sormena bultzatuko duena. Horrez gain gazteek fanzine edo aldizkari bat egiteko aukera aztertu behar litzateke. Bertan toki nagusia izango lukete gai hauek: euskaraz aritzen diren musika taldeei buruzko erreportajeak, abestien letrak lantzea, kontzertuen agenda eta kritikak, CD berrien aurkezpenak edo euskaraz aritzen diren musika taldeei egindako elkarrizketak. Gauza bera egin daiteke formatu digitalean ere, web orria martxan jarri eta era dinamiko batean kudeatu jendearen parte-hartzea aisatuz.

### **Euskararen prestigioa berreskuratu beharra**

Gazte askoren ustea da gaztelaniak betetzen duen rola euskararena baino garrantzitsuagoa dela eta euskara eskola edo etxeko esparrura mugatzen dute. Kalean, gaztetxean, tabernetan, teknologia berrietan, komunikabideetan edo musikaren munduan erdarekin lehian dabil euskara eta aurrera egingo badu, aipatu ditugun esparru hauetara zabaldu behar du. Beste hizkuntzekiko duen desoreka leundu behar du. Izan ere, umeak gaztarora iristen direnean eta esparru berri horietan murgiltzen direnean, askok euskara alde batera uzten dute. Horregatik neraberoan euskarazko ohiturak sortu behar dira, gaztelaniaz hasten dituzten erlazioak eta harremanak gaztelaniaz izaten jarraituko baitute. Azkenean, gainera, ohitura bihurtzen dira eta, arestian esan dugun moduan, halako ohiturak indartzen direnean normalizatzen hartzen bukatzen dira. Honela gertatzen da gazte askori batere arraroa ez egitea bere inguruan hainbeste gauza gaztelaniaz izatea. Ohitu egin dira eta onartu egiten dute.

Gainera kontuan izan behar da gazteek duten ingurua, bai kultura bai hizkuntzari dagokionez, gero eta anitzagoa dela. Gazteek entzuten dituzten abestien letrak, esate baterako, hiru edo lau hizkuntza ezberdinetan ikusten dira. Hizkuntza aniztasuna bizi dute gazteek eta hizkuntza ezberdinen funtzio banaketa ezartzen dute. Hau da, hizkuntza bakoitzari beren bizitzako arlo finko bat egotzen diote. Funtzio ezartze horretan ikusten da ere hizkuntza bakoitzari ematen dioten garrantzia. Adibidez, erabilerari lotuta dagoen funtzio praktikoa eta komunikatiboa gaztelaniari ematen diote lagunartean, musikaren munduan, kalean edo kontzertuetan, eta askotan euskarari balio sentimental bakoitzari ematen. Beraz, arlo horiek be-

rreskuratu ahala (musikaren ingurukoek, bereziki, ikusi dugu zein toki inportante duten nerabearen bizitzan) euskarak gero eta prestigio handiagoa izango du gazteen artean. Horrek, berriz, eragin zuzena du euskara erabiltzeko gazteek izango duten motibazioan.■

## 5. ERANSKINAK

### 5.1. Sakoneko elkarrizketetarako gidoia

#### SAKONEKO ELKARRIZKETARAKO GIDOIA \*

##### 1. Sarrera.

- Aurkezpena (Arrasateko ikastolan, 15-17 urteko gazteak).
- Ikerketaren helburua (Gazte nerabeek musikarekin duten lotura eta honetan euskarak eta euskal munduak duen presentzia aztertzea).

##### 2. Gazteen bizitzan, ohituretan, bizimoduan eta egunerokoan musikak duen tokia.

- Noiz entzuten dute?
- Zenbat denbora ematen du honetan?
- Zer nolako garrantzia du beren aisialdian?
- Lagunekin konpartitzen den zerbait al da (lagunarteko elkarrizketatan, kontzertuak, CD trukeak, internet,...)?
- Musikaz gain, honekin erlazioa duten zer beste gauza kontsumitzen dute (kontzertuak, kamisetak, aldizkariak, web orriak, posterrak,...)?

##### 3. Nora jotzen dute musika bila?

- Internet.
- Lagunekin konpartitu.
- Irratia.
- Telebista.
- CDak erosi.
- Kontzertuak.
- Tabernak.
- ...

##### 4. Nola izaten dute dagoenaren berri?

- Lagunak, kalea.
- Aldizkariak. Zein aldizkari?.
- Internet.
- Telebista. Zein telebista?
- Irratia. Zein irrati?
- Egunkaria. Zein egunkari?
- Kontzertuetako kartelak.
- Musika dendak.
- ...

5. Irratia eta komunikabideak oro har.
  - Entzuten al dute irratia? Zergatik bai? Zergatik ez? Entzuten dutenak, zein irratia?
  - Hauei buruzko iritzia.
  - Ematen duten musika mota?
  - Zein talde agertzen dira?
  - Euskal taldeak zenbat eta zein?
  - Promozio eta propagandarik egiten al dute euskal taldeei buruz?
6. Internet
  - Erabiltzen al dute?
  - Web orri ezagunik musikaren gainean?
  - Euskal musikari buruzko orrialderik?
7. Zer entzuten dute?
  - Taldeak.
  - Musika mota.
8. Euskaraz direnak.
  - Euskaraz direnak.
  - Inporta al zaie zein hizkuntzatan den?
  - Ez ulertzea inporta al zaie?
  - Bere ustez euskararen munduarekin nolabaiteko lotura duten taldeak, nahiz eta ez izan euskaraz.
9. Zer pertzepzio dute “euskal musikaren” gainean.
  - Zer da euskal musika?
  - Ezagutzen al da?
  - Nola eta non ezagutu dute?
  - Ezagutzen ez bada, zergatik ez?
  - Zer iruditzen zaie?
  - Entzuten al dute? Beren ingurukoek? Zergatik bai? Zergatik ez?
  - Modan al dago?
10. Musikaz aparteko materialaren kontsumoa
  - Kamisetak, liburuak, aldizkariak, posterrak, egunkariak,...
  - Euskaraz al dira?
11. Herriko taldeak.
  - Entzuten al dituzte? Zergatik bai? Zergatik ez?
  - Egiten duten musika mota.
  - Erabiltzen duten hizkuntza? Inportantziarik ba al du?
  - Zergatik erabiltzen dute erdara?
  - Ezberdintasunik ba al dago euskara erabili ala erdara erabili musika egiteko? Eta entzuteko?
12. Bukatzeko, zer da zuretzako musika? Zure bizitzan? Zure egunerokotasunean? Musika behar duzu? Zergatik?
  - (Elkarrizketa osoan zehar oso presente eduki behar dugu hizkuntzaren gaia, baina egoera artifiziala egin gabe, hobe da beraiek naturaltasunez esan behar dutena esatea, pentsatzen dutena esatea).

## 5.2. Ikasleei egindako galdetegia

Musika ohituren gaineko inkesta

### 1. Zenbat denbora ematen duzu egunean musika entzuten?

Egunero 2 ordu baino gutxiago.... Egunero 2-3 ordu.... Egunero 3 ordutik gora....

### 2. Noiz egoten zara musika entzuten?

Goizean jaikitzen zarenean...  
Dutxan zaudenean.....  
Kalean zaudenean.....  
Ikastolara bidean.....  
Etxeko lanak egitean.....  
Ordenagailuan ari zarenean...  
Tabernetan zaudenean.....  
Beste batzuk : .....

### 3. Musikaz gain, honekin erlazioa duten zer beste gauza kontsumitzen dituzu?

Kontzertuak....  
Kamisetak.....  
Aldizkariak.....  
Web orriak....  
Posterrak.....  
Egunkariak.....

### 4. Nora jotzen duzue musika bila?

Internet.....  
Lagunekin konpartitu...  
Irratia.....  
Telebista.....  
CDak erosi.....  
Kontzertuak....  
Tabernak.....

### 5. Nola izaten duzue musikan ateratzen diren nobedadeen berri?

Aldizkariak..... Zein ldizkari?.....  
Internet.....  
Telebista..... Zein telebista kate?.....  
Irratia..... Zein irrati?.....  
Lagunak, kalea.....  
Egunkaria..... Zein egunkari?.....  
Kontzertuetako kartelak.  
Musika dendak.....

### 6. Irratia eta komunikabideei buruz.

Entzuten al duzu irratia? BAI .....  EZ.....  
Entzuten baduzu zein irrati entzuten duzu?.....



Entzuten ez baduzu, zergatik ez duzu entzuten?

Jartzen duten musika mota ez zaizulako gustatzen.....

Musika gutxi jartzen dutelako.....

Euskal musikarik jartzen ez dutelako.....

Musika komertzial jartzen dutelako.....

### 7. Internet.

Erabiltzen al duzu sarea musika jaisteko? BAI.....EZ.....

Ezagutzen al duzu web orririk musikari buruzko web orririk?

BAI.....EZ.....

Ezagutzen baduzu esan zein ezagutzen duzun.....

Euskal musikari buruzko orrialderik ezagutzen al duzu? BAI.....

EZ.....

Ezagutzen baduzu esan zein ezagutzen duzun.....

.....

### 8. Zein musika mota entzuten duzu?

Esan itzazu entzuten dituzun sei musika talderen izenak:

1.....

2.....

3.....

4.....

5.....

6.....

### 9. Euskaraz direnak.

Entzuten dituzun taldeetatik euskaraz direnak aipa itzazu.....

Inporta al zaizu zein hizkuntzatan dagoen entzuten duzun musika?

BAI.....EZ.....

Entzuten duzun musika ez ulertzea inporta al zaizu? BAI.....

EZ.....

### 10. "Euskal musika".

Euskal musika hitzak entzuten dituzunean burura datozkizun lehen-dabiziko hiru hitzak idatz itzazu:

1.....

2.....

3.....

Ezagutzen al da euskaraz egiten den musika? BAI.....EZ.....

Ezagutzen ez bada, zergatik ez da ezagutzen? Eman ezazu arrazoi bat:

.....

Modan al dago? BAI.....EZ.....

### 11. Musikaz aparteko materiala.

Erosten dituzun musikari buruzko kamisetak, aldizkariak edo poster-rak euskaraz al dira? BAI  EZ.

### 12. Herriko taldeak.

Entzuten al dituzu zure herrian dauden musika taldeak? BAI.....

EZ.....

Erabiltzen duten hizkuntza zein den inportantziarik ba al du zuretzat?  
BAI.....□EZ.....□

Ezberdintasunik ba al dago euskara erabili ala erdara erabili musika  
egiteko? Eta entzuteko? BAI....□EZ....□

Ezberdintasunik baldin badago ezan ezazu zein den: .....

.....  
.....  
**Jarri ezazu emakumezkoa al gizonezkoa zaren .....**

*Eskerrik asko erantzuteagatik.*

## BIBLIOGRAFIA

- ADELA CORTINA, *Filosofia*, Zubia Santillana, Etxebarri, 2002.
- AIZPURUA, J., *Gizarte sareak + Euskara 2.0*, udaltop, 2010.
- AMONARRIZ, K. eta LIONEL, J., *Hizkuntzen kale erabileraren neurketa 2006*,  
Soziolinguistika aldizkaria, 62. zenb., 2007.
- ATXABAL, J., *Narziso berriaz gogoetak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- AZTIKER, *Gipuzkoako gazteak eta politika 2009, azterketa kuantitatiboa*, An-  
doain, 2009.
- BELTZA, AZURMENDI, J. eta EUSEBIO OSA, *Modernitatea eta postmoder-  
nitatea*, Larrun, 4. zb., 1986.
- BERRIOTXOA, K., *Euskal Herriko gaztetxoaren eskola-orduz kanpoko hizkuntza  
erabilera*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- COMAS, Martin: *Impacto de la Música sobre los adolescentes*,  
www.monografias.com.
- DÍAZ DE TUESTA, *Euskararen kale erabilera Gipuzkoan*, Bat Soziolinguistika  
aldizkaria, 64. zenb., 2007.
- EMUN, *Debako EBPN*, 2006.
- ETXEGOIEN, F., *Neurona eta Zeurona*, Pamiela, 2004.
- EUSKADIKO GAZTEEN KONTSEILUA, *Berbakeita 09*, www.egk.org.
- EUSKO JAURLARITZA, *Euskadiko Gazteak 2008*, Eusko Jaurlaritza, 2008, Vi-  
toria-Gasteiz
- EUSKO JAURLARITZA, *Euskararen kalitatea, zertaz ari garen zergatik eta zer-  
tarako*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2004.
- EUSKO JAURLARITZA, *Hizkuntza biziberritzeko saioak*, Kultura Saila, Vito-  
ria-Gasteiz, 2002.
- HABE aldizkaria, Xabier Montoia, *euskara-ikasle*, 451803 zbk., 2009-12-03
- HERNANDEZ, J. M., *JOLASGARAIK Gaztetoak, hizkuntzak eta identitateen  
adierazpenak*. Sozilologiako Euskal Kuadernoak 16, 2005.
- JAUREGUI, P., *Esku-hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta*,  
UDALTOP, 2010-04-21.
- JUARISTI LARRINAGA, P., *Gizarte ikerketarako teknikak, Teoria eta adibideak*,  
EHUko Argitalpen Zerbitzua, Zarautz.

- LEZETA, M. eta SAN MARTIN, E., *Giro urbanoko gazteak eta euskara*, UEUko Soziolinguistika saila, Bilbo.
- MARTINEZ DE LUNA, I., *Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena*, Bat Soziolinguistika Aldizkaria 40, 2001.
- MARTINEZ DE LUNA, I., *Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak*.
- REDONDO, Antonio: *Papel de la música en los jóvenes*, w.w.w.comtf.es
- TXATXILIPURDI, *Famila bidezko hizkuntza transmisioa*.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, *Gazteen Hizkuntza Erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua – Eraitzen txostena*, 2006.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, *Urretxu-Zumarragako Euskararen Kale Erabileraren Neurketa*, 2006.
- SUÁREZ HURTADO, W., *La música y los jóvenes de hoy: los hijos de la chica in Lima: aspiraciones, reconocimiento y ciudadanía en los noventa*, Pontificia Universidad Católica del Perú, Fondo Editorial, Lima, 1997.
- URLA, J., *El nuevo "Ritmo" del Euskara: Identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak* (egileak berak egindako laburpena eta berak itzulitakoa da artikulu hau).
- ZABALETA, O., *Kale erabilera datuak aztertuz, gazteei begira*, Soziolinguistika klusterra, 2005.
- ZUMAIAKO UDALA, *Zumaian haurren eta gazteen sustapenerako sistema eskuhartzeko planteamendua*, 2009.

## OHARRAK

1. MARTINEZ DE LUNA, I., *Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena*, Bat Soziolinguistika Aldizkaria 40, 2001.
2. Honela dio Jone Mire Hernandezek 2002an Bilboko ikastetxe batean, hiru hilabetez, gazteen eskolako bizitzak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duen lanean, nerabeak bere identitatearen bilatze horretan helduen munduarekin apurtu beharra adierazten duten jarrerari buruz: "Helduek sortutako eta hizkuntzaren inguruan garatutako diskurtsoak ez dituzte gustuko: batzuk, zuzenean aginduekin identifikatzen dutelako (*egin euskaraz!* baino ez dutela entzuten diote gazteek); beste batzuk identifikazio politikoarekin lotzen dutelako; azkenik, beste multzo batek, egunerokotasunean sumatzen ez duten errealitate batekin lotua ikusten dutelako (*non dago euskara Bilbon?*, galdetzen diete gaztetxoek bere buruari). HERNANDEZ, J. M. (2005). *JOLASGARAIK Gazteak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiako Euskal Kuadernoak 16.
3. TXATXILIPURDI, *Famila bidezko hizkuntza transmisioa*, 3.or
4. "Heldutasunerako prozesu horretan hazkuntza krisiak gertatu ohi dira. Batzuetan, lehen mailako sozializazioaren bukaeran gertatzen dira horrelako krisiak: subjektuak argi ikusten baitu gurasoen mundua ez dela mundu bakarra, beste hainbat ikuspegi eta eredu ere badaudela. Beraz, arazoak sortzen zaizkio koherentzia personalaren eta identifikazioaren inguruan. Esanak esan, oso krisi bortitzak sortu beharko lirateke lehen haurtzaroen barneraturiko errealitatea zapuztuta gertatzeko. Oro har, bigarren mailako sozializazioak ez du iragana suntsitzen; aitzitik, iraganetik abiatuta eraikitzen du." ADELA CORTINA, *Filosofia*, Zubia Santillana, Etxebarri, 2002, 170.or.
5. Identitatearen eraikitze honetan helduen munduaz gain beste erreferentzia gazteak beraiek dira. Jone Miren Hernandezek dienez gazte kulturak gero eta indar handiagoa du eta talde sozial gisa gero eta garrantzitsuagoa bilakatu da. "...gazteak berak dira eredu bilakatzen direnak beste gazteentzako. Beraien arteko loturak eta taldeak osatu eta finkatzeko garaian ezinbestekoak dira kanpoko erreferentziak.

Kasu honetan, talde definizio horrek beste taldeekiko banaketa eta bereizketa eskatzen du, eta horretan batzuk besteen aurka erabilitako argudioek eta salaketek protagonismo nabaria hartzen dute nerabeen elkarrizketetan.

Egoera horretan zeuden Agirreko nerabeak ere. Prozesu horri konponbidea emateko garaian bi joera edo eredu nagusi garatzen ari zirela sumatu zen. Batean, indarra kanpoko bereizgarrietan eta seinaleetan —itxura edota estetikan, besteak beste— jartzen zuten bitartean, bestean barne prozesuei —bailio eta usteei, esate baterako— ematen zieten lehentasuna”.HERNANDEZ, J. M. (2005). 115. or.

Horregatik ezinbestekoa izango da, hauen estetika, modak, musika, hizkuntzarekiko jarrera edo bereizgarri diren beste zenbait aspektu aztertzea nerabeen errealtatea ezagutu eta haei zuzendutako mezuak bidali edo edozein hizkuntza plangintza egin aurretik.

6. ZABALETA, O. (2005), *Kale erabilera datuak aztertuz, gazteei begira*, Soziolinguistika klusterra.

7. Arrasateko erabileraren bilakaera sexuka nola izan den adierazten duen daturik ez dut aurkitu, baina Euskal Herria, Gipuzkoa eta Debagoienako 2001eko datuen arabera, bi sexuen arteko aldea handia ez bada ere, emakumeen erabilera maila gizonezkoena baino altuagoa da. Debagoienean, esaterako, euskaraz gizonezkoen %44,4 aritzen zen bitartean emakumeena %47,5 zen.

Bestalde, 1996an Gipuzkoako gazteen artean egindako ikerketa batek dioenez euskararen ezagupenari dagokionez, sexuak ez dirudi eragin handia duenik. Baina erabilpenari dagokionez, eta etxeko erabileran desberdintasunik ez dagoen arren, lagun arteko harremanetan emakumezkoek euskaraz hitz egiteko ohitura gehiago dutela ikus daiteke. Bide beretik doaz Euskal Herriko Kale Erabileraren V. neurketaren ondorioak ere. Honekin dio sexuaren arabera emaitzei dagokionez: *Hego Euskal Herriko hiriburuetan (gaimontzeko eremuatarako ez dugu lagin nahikorik) emakumezkoek gizonezkoek baino erabileramailla hobekak azaldu dituzte.*

8. EUSTATEk 2001 eta 2006 urtean biztanleei buruz emandako datuen arabera, beheko taulan ikusten den moduan, 2001-2006 urteetan Arrasatek izan duen hazkuntza-tasa negatiboa izan da. 2006an 1.305 biztanle gutxiago zituen Arrasatek. Honekin batera, euskaldunen (“ia euskaldunak” kategoriakoak kanpoan utzita) kopuruak ere behera egin duela ikusten da urte tarte horretan, 984 jeitsi baita. Baina azpimarratzekoa da euskaldun kopuruaren beherakada populazioarena baino ia puntu erdi handiagoa izan dela. 2001ean euskaldunen kopurura %55,9 zen bitartean, 2006an %54,7 zen.

Udalerrria/ auzategia	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	2001	2006	2001	2006	Bizt.	Eusk.
Arrasate	22664	21359	12660	11676	-1,18	-1,61

Arrasateko biztanleria eta euskaldunen hazkuntza erritmoa 2001-2006 (Iturria: EUSTAT.)

Arrasateko biztanleria eta euskaldunen hazkuntza erritmoa 2001-2006 (Iturria: EUSTAT.)

### Bi urtetik gorako biztanleei buruzko datuak).

Beharakada hau, motel ari bada ere, 1981tik 2001erako datuek adierazten dutenarekin ez dator bat. Alegia, urte tarte horretan euskaldun kopuruaren gorakada konstante mantendu eta 17 puntu igo zen, 1981ean populazioaren %39 euskalduna izatetik, 2001ean %55,9 izatera pasatu baitzen. Beraz, 2001etik aurrerako datuek, aurreko hogeitau urteetan euskararen ezaguerak zeraman gorako joera aldatu egin dela adierazten dute.

Datu hauek joera aldaketa baino ez digute adierazten. Baina galderak ere planteatzen dizkigute, joera hau aldatzen saiatu nahi bada erantzun beharrekoak gainera. Izan ere, hezkuntza sistemak eraginda (D eredu bakarrik dago Arrasaten) gazteen ezagutza igo egingo dela pentstu behar da. Beraz, aldaketa hori zein adinetan eman den jakitea adibidez, ezinbestekoa litzateke. Dena den, esan bezala, taula honek argi adierazten duena hazkuntzaren joera baino ez da, kasu honetan negatiboa izan dena.

Ezagutzaren datu hauekin erabilera isotropikoa kalkulatu dut. Hau euskararen ezagutza mailaren arabera, espero daitekeen erabilera da. Hau da, ezagutza hainbestekoa izanik, euskaldunak euskaldunekin elkartzeko zer aukera dagoen aztertzen da (hemen ere “ia euskaldunak” kategoriakoak kanpoan utzita), alegia, euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible. Kalkulu honen Arrasateko bilakaeran beharrezko joera ikusten da. 2001-2006 tartean 2,57 puntuko jeitsiera atzematen da. Datu zehatzak ez badira ere, hemen egiten den probabilitate kalkuloak joera adierazten du eta Arrasaten euskaraz mintzazeko aukera potentzialak jeisten ari direla ikusten da beheko taulan.

udalerrri /aUZategi	erabilera isotropikoa (estimazioa)											
	2006	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Arrasate	22,55	22,10	21,88	21,66	21,44	21,22	21,01	20,80	20,59	20,39	20,18	19,98

Beraz, bukatzeko eta ondorio orokor moduan esan daiteke:

1. Biztanleria osoarekiko erlazioan euskaldunen kopurua, motel bada ere, jeisten ari dela eta aurreko urteetako gorako joeraren kontrakoa hartu duela.
2. Euskaraz mintzateko aukera potentzialak gero eta gutxiago direla Arrasaten eta 2018 urterako estimazioa eginez %20ra ere ez dela iristen.
3. Kalkulu hauen arabera egindako erabileraren estimazioa (espero zitekeena) kale neurketak jaso duen erabilera erreala baino baxuagoa da.

9. ZABALETA, O. (2005), *Kale erabilera datuak aztertuz, gazteei begira*, Soziolinguistika klusterra.

10. Gai honi buruz oso artikulua interesgarriak eta argigarriak gertatu zaizkit bi hauek: MARTINEZ DE LUNA, I., *Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak*, eta SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, *Gazteen Hizkuntza Erabileran reaqiten duten faktoreen azterketa proiektua – Emaizten txostena*, 2006.

11. Hiru grafikoetan agertzen diren datuak Eustatek Arrasateko biztanleria osoari buruz (2006koak) emandakoak dira.

12. Ikus. postmodernitateak gure herrian dituen ondorioei buruz egiten diren gogoeta interesgarriak jasotzen dituen artikulua luzea: BELTZA, AZURMENDI, J. eta EUSEBIO OSA, *Modernitate eta postmodernitate*, Larrun, 4. zb., 1986ko abendua.

13. AZTIKER, *Gipuzkoako gazteak eta politika 2009, azterketa kuantitatiboa*, Andoain, 2009.

14. SUÁREZ HURTADO, W., *La música y los jóvenes de hoy: los hijos de la chica in Lima: aspiraciones, reconocimiento y ciudadanía en los noventa*, Pontificia Universidad Católica del Perú, Fondo Editorial, Lima, 1997.

15. *Euskadiko Gazteak 2008*, Eusko Jaurlaritz, 2008, Vitoria-Gasteiz, 116. or. Datuokin bat datoz ere CI-RESEk ematen dituen Espainian jasotako beste hauek: "El Centro de Investigaciones de la Realidad Social (CIRES) nos permite conocer a qué dedican los jóvenes su tiempo libre: Amigos 85%; Televisión 62%; Música 53%; Copas 32%; Lectura 29%; Deporte 28%; Cine 19%; Excursiones 12%; Radio 11%; Prensa 10%." REDONDO, Antonio: *Papel de la música en los jóvenes*, w.w.w.comtf.es.

16. 17 "Por lo tanto, la música tiene un aspecto sociológico... La sociedad genera la música como su producto cultural. A su vez, ese producto modifica a la sociedad misma, porque la agrupa de diferentes maneras, genera grupos de pertenencia, produce alienación, implanta valores, ideales, los difunde, genera modelos e ídolos, inserta nuevos actores sociales, se generan nuevas creencias..." CO-MAS, Martin: *Impacto de la Música sobre los adolescentes*, w.w.w. monografias.com.

Egileak musikaren aspektu soziologikoaz gain, eragin psikologikoaz ere ohartarazten du, gizarte eta gizakiaren portaerak aldatzeaz gain, gizakiaren barne egitura psikologikoaren eraginak ere aipatzen baititu.

17. URLA, J., *El nuevo "Ritmo" del Euskara: Identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak* (egileak berak egindako laburpena eta berak itzulitakoa da artikulua hau).

18. REDONDO, Antonio: *Papel de la música en los jóvenes*.

19. Duela gutxi hamalau urteko mutiko euskaldun bati entzuten nion ikastolan filme bat ikusi behar zutela eta nola kezkatzen zen euskaraz zelako. Ez arazorik zuelako ulertzeko, D ereduak eta etxean ere txikitatik euskaraz egin izan duena baita. Zine zalea zen gainera, baina ez zuen ohiturarik filmeak euskaraz ikusteko eta arrotza egiten zitzaion. Filmea euskaraz bazen nahiago zuela ez ikusi esan zidan, euskaraz aspergarriak eta sosoagoak zirelako, edozein zela ere pelikula. Gaztelaniara ohituta, gero eta ahalegin gehiago egin behar zuen filmeak euskaraz ikusteko.

20. Xavier Montoia, *euskara-ikasle*, HABE aldizkaria 451803 zbk., 2009-12-03.

21. Herrian ezagutzen diren gertuko erreferenteak izatea ona dela uste dut, gertutasunaren esperientzia izatea gazteen portaeratan eraginkorragoa dela uste baitut. Hala ere eta gertutasun horregatik, eredu hauen inkoherentziak beste zenbaitenak baino ageriago geratzen dira. Gazteen iritzi (elkarrizketetan adierazi dutena) herrian bada kantak euskaraz egin baina gero kalean edo tabernan ari direnean beti gaztelaniaz ari direnak. Edo dena gaztelaniaz kantatu arren euskaldunak direla adierazi

nahian bezala, euskarazko kanta bakarren bat egiten dutenak. Hipokresia hori salatzen dute gazteek eta nahiko gogor gainera. Beraz, gertutasun hori dela eta, herriko gazteentzat euskararen erreferente eraginkorrak izan daitezen benetako koherentzia erakutsi beharko dute.

Koherentziaren idea azpimarratzen du Pello Jauregik ere gurasoei buruz ari denean: *Gurasoentzat hauxe da benetako ordua, hizkuntzazko jokaerari dagokionez. Gurasoen hizkuntza koherentzia ezaz jabetzen dira orain inoiz baino argiago nerabeak eta ez dute erraz onartuko moral bikoitzik. Hizkuntzarekiko moral bikoitzak aupada handia emango dio nerabeari hizkuntza nagusiarantz heltzeko. Aitzitik, hizkuntza koherentzia erakutsi ohi duten gurasoek eredu sendo, erreal eta benetakoa ematen diote heldu izan nahian dabilen nerabe saiatuari.* JAUREGUI, P., *Esku-hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta*, UDALTOP, 2010-04-21 .

22. Goienkariak leku zabala (eta oso txukuna gainera, argazki asko eta euskara irakurterraz eta ego-kian) eskaintzen die Arrasate eta inguruko herrietako musika taldeei: kontzertuen berri zabala ematen dute, asteburuko kontzertuen kritikak egiten dituzte, taldeen CD berien aurkezpen eta kritikekin batera musikariak elkarrizketatzen dituzte.

23. *Euskararen kalitatea, zertaz ari garen zergatik eta zertarako*, Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteiz, 2004.

24. LEZETA, M. eta SAN MARTIN, E., *Giro urbanoko gazteak eta euskara*, UEUko Soziolingusitka saila, Bilbo, 61. or.